

Nafarroako Ekintzailetza Gida

Aurkitu erraz zure proiektua martxan jartzeko
eta handitzeko baliabide eta laguntza guztiak



Nafarroako Ekintzailetza Gida

Bultzatzailea eta finantzatzailea: Nafar Lansare – Nafarroako Enplegu Zerbitzua

Prestatzailea: Susana Molpeceres Alfonso, ekintzailetza eta berrikuntza aholkularia eta lurralde-garapenean espezialista.

Diseinua eta maketazioa: [Estudio Omapora .eu](https://EstudioOmapora.eu)

Edizioa: 2024

Harremanetarako: autoempleo@navarra.es

Nafarroako Ekintzailetza Osasungarrirako Gida

hau Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatua da, eta oinarrizko informazioa eskaintzen du zure proiektua gauzatzeko edo sendotzeko dituzun baliabide publiko eta pribatu nagusiei buruz. Horrez gain, zenbait pertsona elkarrizketatu ditugu, bakoitza bere esparrutik gure erkidegoan ekintzailetza laguntzen aritzen direnak, eta, jakina, bidean abiatuak diren zenbait ekintzaile elkarrizketatu ditugu. Azkenik, ekintzaile izan diren batzuek sortutako produktu eta zerbitzuen direktorio bat jaso dugu, beren ideiari forma ematen hasi direnentzat sortua.



Edukiak

Oinarri-oinarrizkoak

Entsalada ekintzaile baterako osagaiak

Zer zerbitzu dauzkazu eskura?

HASTEKO oinarrizkoak

Aholkularitza · agenda eta informazioa
· prestakuntza · ekitaldiak · espazioak ·
laguntzak eta pizgarri fiskalak

IRAUTEKO oinarrizkoak

Azeleratzaileak · hub-ak · gizarte-
erantzukizuna eta berdintasuna · lurralde-oreka
/ landa-garapena · finantziazioa eta hazkundera
· berrikuntza · ekonomia berdea · eraldaketa
digitala · nazioartekotzea · beste baliabide
interesgarri batzuk

Entsalada- oinarriak

Zer entitatek
laguntzen ahal dizute?

Nafarroa Ekintzaile Sarea
Beste erakunde eta entitate batzuk
Hezkuntza eta unibertsitateak
Nafarroatik harago

Gozagarriak

Elkarrizketak funtsezko
eragileekin

Erakundeak
Hezkuntza eta unibertsitateak
Ekintzaileak

Beste batzuk

Agurra

Ekintzailetza osasungarria

Etxez-etxe

Enpresa hornitzaileen fitxak

Klik batera

Material eta aplikazio
interesgarriak

Itxiera

Glosarioa
Informazio-iturriak

Agurra

Ekintzailletza osasungarria

Osasuna! ¡Salud! Eta berdin...

Salut, Chin-chin, 干杯, ¡!! Sanatate, صحة جيدة, Cheers!

Zergatik hitz egiten dugu osasunaz ekintzailletzaren munduan?

Bada, entsalada fresko eta goxo batean bezala, osagairik onenak direlako negozio emankor baten hasiera.

Gero eta kontzienteago gara gure elikadura-aukerek duten garrantziaz.

Era berean, ekintzaile arrakastatsu eta iraunkor izateko, garrantzitsua da identifikatzea zein produktu osasungarri eta elikagarriari esker handituko den gure negozioa.

Forma ematen hasten garen une beretik.

Hasiko gara?

Imajinatu entsalada-ontzi huts bat. Zure negozio-ideia da.



Ontzi hori betetzera gonbidatzen zaitugu, horretarako Nafarroako ekintzailletza-ekosistemako askotariko produktuak erabiliz,

freskoak, 0 kilometrokoak, publikoak nahiz pribatuak. Askotariko aukerak, profesionalek emanak, gai direnak zure potentzialtasun guztiak aktibatzeke, baita ezagutzen ez dituzunak ere:

Hauta ezazu oinarri fresko bat, letxugaz, kimu berdez... Gida honetan hainbat entitate aurkituko dituzu ekintzailletzan espezializatuta daudenak eta beren altxorrik onena eskaintzen dizutenak: jakintza.

Zure esku jartzen dituzte aholkularitza, tresnak eta lanabesak zeure menu propioa presta dezazun eta zure publikoarengana modu eraginkorrean irits zaitezzen.

Gehitu osagaiak (aurrena erakusten dizkizugu): zer sostengu, zerbitzu, baliabide eta laguntza-mota dituzu eskura? Proposatzen dizugu izapideetatik eta izan litezkeen laguntzetatik harago pentsatzea.

Ideiari eta negozio-ereduari buruzko aholkularitza da gakoa. Hautatu itzazu zure proiektuak behar dituen proteinak, mineralak eta bitaminak. Nutrizionista gisa, bitan banatu ditugu: [hasteko oinarrizkoak](#) (biziraupen-kit bat, edo hauek gabe saiatu ere ez zaitez egin) eta [irauteko oinarrizkoak](#), zure proiektuak ibiltartea izan dezan.

Bidenabar: osagairen bat gustatzen ez bazaizu edo alergia eragiten badizu, ez ezazu baztertu, hura erabili beharra baduzu. Izan ere, kasu

honetan, on egingo dizu!

Gozagarriak: zapore-leherketa bat zure bide bera egiten ari diren profesional batzuei eta ekintzaile batzuei egindako elkarriketen bidez. Ezagutu haien sekretuak eta zure proiektua ontzeko aholkuak.

Etkez etxeko zerbitzua: Soluzio eta zerbitzu espezifikoko batzuk behar dituzu? Aurkitu itzazu zuri laguntzeko prest dauden Nafarroako enpresa hautatu hauetan. Ekintzaile izan zirenen erantzunak horretan hastekotan direnentzat.

Klik batera: Materialak, gidak eta aplikazioak, ekintzailletzaren alor jakin batzuetan sakontzen dutenak.

Ekintzailletza osasungarriko baliabideen zerrenda honi ahalik eta etekinik handiena atera diezaiozun nahi dugu. Mapatzea Nafarroako Gobernuak Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak sustatua da, berak babesten baitu Foru Komunitateko ekintzailletza-sarea, Enplegu Planeko eragile sozioekonomikoekin batera. Eskertzen dugu profesional eta entitateek izandako parte-hartzea eta emandako laguntza.

Ekintzaile izatea bizitzak eraldatzeko eta gure ingurua aldatzeko aukera bat da. Nabarmendu zeure burua!

Espero dugu gida hau inspirazio-iturri izanen duzula zure errezeten ahalmen mugagabea aktibatzeke. Etorkizunetik, eskerrik asko!



Oinarri-oinarrizkoak

Entsalada ekintzaile baterako osagaiak

Zer zerbitzu dauzkazu eskura?




HASTEKO oinarrizkoak:

1. Aholkularitza
2. Agenda eta informazioa
3. Prestakuntza
4. Ekitaldiak
5. Guneak
6. Laguntzak eta pizgarri fiskalak



Osagaiak

HASTEKO oinarrizko diren sei




Atal honetan, Nafarroan gaur egun dauden zerbitzu, baliabide eta laguntza-moten aukera guztiak aurkituko dituzu. Gida honen balioetako bat da ez direla bakarrik jaso entitate publikoak eta Ekintzailatza Sareak eskaintzen dituztenak, pribatuak ere jaso baitira.

Eman begiratu bat eskaintzari, eta aukeratu zure gustuaren eta premien arabera. Informazio gehiago ikus dezakezu esteketan.

Lehenik, hasteko oinarrizkoak diren osagaiak aurkezten dizkizugu. Ekintzaile izatean, bakardade- eta zorabio-sentsazioa izaten da. Prozesu konplexu bati aurre egin behar diozu, eta mugarri batzuk gainditu.

6 baliabide hauek egokiak dituzu lagundu zaitzaketen profesional eta eragileekin konektatzeko.



Osagaiak

HASTEKO oinarrizko diren sei



1. Aholkularitza

Ekintzailetzan espezializatutako orientazioa da oinarrizkoetan oinarrizkoena.

Aholkularitza hori [haratago](#) doa izapide, forma juridiko eta laguntzei buruzko informazio hutsetik. Zenbait profesional espezializatuk aztertuko dute zure proiektua, eta laguntzen ahal dizute kontu batzuk ikusten zuri oharkabeen pasatuak edo asko landu gabe zeneuzkanak: negozio-eredua, bezero-bilaketa, salmenta-kanalak, eredu ekonomiko-finantzarioa, etab. Laburbilduz, lagunduko dizute proiektua zentratzen, fintzen eta bultzatzen.

Zerbitzu hori [Nafarroa Ekintzaile](#) entitateen sareak ematen du, zeina NL-NEZek bultzatua eta beste erakunde batzuek ere osatua baita (enplegu eta tokiko garapenerako eragileak, eragile sozioekonomikoak, etab.). Sostengu eta intentsitate-maila desberdinetako laguntza ematen dute, sustatzaileen beharren eta profilaren edo proiektu-motaren arabera: negozio berriak diren, eskualdaketak edo beste.

[Kontsultatu zerrenda navarraemprende.com helbidean](#) eta [Oinarriak atalean](#).

Horretaz gain, badira [Ekintzailetzaren Arretarako Puntuak \(EAP\)](#), aholkularitza administratibo eta juridikoan ematen dutenak eta zenbaitetan izapideak egin ere bai. Halako 7 daude Nafarroan.

Ekintzailetzari buruzko aholkulari-lan horrek osatu egiten du zerga-, lan- eta kontabilitate-aholkularitzen lana (haietako zenbait, sektore batean edo bestean espezializatuak dira).

Ohiko zerbitzuak:

Lagun-egitea

Eratzeko izapideei buruzko informazioa

Kontabilitate- eta zerga-izapideak autonomoentzat

Eskualdaketak - Negozioen errelebo-poltsa

Aholkularitza teknikoa

Aholkularitza juridikoa

Enpresa-planaren bideragarritasuna

Mentoretza

Etab.

www.navarraemprende.com

www.navarraemprende.com/navarra-emprende/entidades-de-apoyo/

www.paelectronico.es/es-es/Servicios/Paginas/BuscadorPAE.aspx



Osagaiak

HASTEKO oinarrizko diren sei

2. Agenda eta informazioa

Ekintzailetzako ekitaldi eta jardueri dagokienez egunean egonez gero, informazio giltzarria eskuratzeko aukera izanen duzu zure proiektuaren helburuak lortzeko moduari dagokionez. www.navarraemprende.com webgunea da ekintzailetzaren erreferentziazko ataria.

Denetatik pixka bat aurkituko duzu: programak, prestakuntza-saioak, ekitaldi interesgarriak eta albisteak. Ez galdu aukera! Tokiko eremuan bazara ekintzaile, kontsultatu inguruko eragileen webguneak.

www.navarraemprende.com

www.consortioeder.es

www.teder.org

www.navarramedia.es

www.cederna.eu/eus/argitalpenak

3. Prestakuntza

Ekintzaile izaten ekinez ikasten bada ere, garrantzitsua da zure jarduera garatzeko dituzun trebetasunak eta ezagutzak osatzea, negozioa kudeatzeko eta garatzeko gaitasuna handituko duten beste batzuekin. Prestakuntza bi motatakoa izaten ahal da:

NL-NEZ: eskaintza orokorra eta espezializatu zabala, baita ekintzaileentzat ere.

Nafarroa Ekintzaile Sarea: ekintzailetzarako eskaintza espezifikoak, ekintzailetza-prozesuaren alor eta faseetara egokitzen dena.

www.formacion.navarra.es/es

www.navarraemprende.com



Osagaiak

HASTEKO oinarrizko diren sei

4. Ekitaldiak

HARREMANAK funtsezkoak dira. Harremanak izateko bide izan daitezke lehiaketak, motibazio-hitzaldiak, sariketak, azokak, etab.

Kontsultatu aldian behin navarraemprende.comeko eta ekintzailetzarekin lotutako beste entitate batzuetako agenda eta aktualitatea, eta joan zaitez ahal duzun ekitaldi guztietara!

[Lan autonomoaren azoka](#)

[Lan autonomia aintzatesteko sariak](#)

[CEIN Startup Day](#)

[NUPeko Enplegu eta Ekintzailetza Topaketa](#)

[Emprende XXI Sariak](#)

[Navarra Jobs](#)

[Iruña Ekintzaile](#)



5. Guneak

Guneen barruan, lau kategoria biltzen ditugu:

1. **Nafarroa Ekintzaile** sareko **mintegi eta inkubagailuak**. Izan daitezke orokorrak edo jarduera-sektore batean espezializatuak, edo are ekonomia sozialeko formula juridikoetan. Haietan instalatutako proiektuek zerbitzu espezializatuak jaso ditzakete (mentoretza, gaikuntza, ekitaldiak, etab.).

2. **Coworking guneak**: ekimen pribatuari lotuagoak, ohiko lan formula oso interesgarria bihurtzen ari dira bakarka ekiten dutenentzat; izan ere, aukera ematen dute egoera berean dauden beste pertsona batzuekin sinergiak bilatzeko.

3. **Mistoak**: guneak + komunitatea + ekitaldiak. Ekimen interesgarriak, ekosistema trinkotzen eta dinamizatzen dutenak. Adibidez: Goma Fabrika, La Bajera, 2022an AJEk sortua, edo Iruñeko Gaztediaren Etxeak sortutako “Lehen urratsen kluba”, edo Ecosite Rural Lab, Teder-ek bultzatua Estellerrian.

4. **Erabilgarri dauden lokal publikoen poltsa**: ekintzaile izateko azpiegiturak dituzten Nafarroako erakunde publikoak erakusten ditu, eta haiekin zuzenean harremana izateko poltsa.

Kategoria guztietan, balio giltzarria zera da: gune horien inguruan KOMUNITATE bat garatzen dela, modu kolaboratiboan lan egin eta ikas dezazun.

Horrez gain, eman begiratu bat **negozioen errelebo-poltsari** (eskualdaketak). Zerbitzu horrek harremanetan jartzen ditu traspaso bat hartu nahi dutenak eskualdatzeko negozio bat duten pertsonekin, eta laguntzak jaso daitezke.

1.

[Nafarroa Ekintzaile Guneak](#)

[CEIN Berrikuntza Mintegia](#)

[CEIN Nekazaritzako Elikagaien Berrikuntza Mintegia](#)

[Ekintzailatza kooperativa](#)

2.

[www.latierracolabora.com](#)

[www.misocoworking.com](#)

[www.pamplonacoworking.com](#)

[La casa del Reloj, Tuteran](#)

[www.geoinnova.org](#)

3.

[www.labajera.com](#)

[www.pamplonajoven.es](#)

[www.teder.org/proyectos/ecosite-ruralab](#)

[www.lafabricadegomas.com](#)

4.

[www.navarraemprende.com/servicios/locales-vacios](#)

Ez ahaztu gehiago BILATZEA interesatzen zaizun eremuan



6. Laguntza ekonomikoak eta pizgarri fiskalak

1. Gehienbat Nafarroako Gobernutik eta udaletatik datoz.

Egunean egoteko, kontsultatu [Nafarroako Gobernuaren laguntza-bilatzailea](#) eta [Dirulaguntzen Datu Base Nazionalea \(DDBN\)](#). Zure bilatzailean alertak konfiguratu ere egin ditzakezu, eta profesional espezializatuekin harremanetan jarri.

2. Ez da laguntza bat. Langabezian bazaude eta SEPEren langabezia-prestaziorako betekizunak betetzen badituzu, prestazio hau bateragarri egin dezakezu ekintzailetzako lehenbiziko hilabeteetan, edo dena batera kobratu (ordainketa bakarra, betekizunekin). Egin kontsulta SEPEn.

3. Azkenik, izena ematen baduzu [Ogasun Departamentuko pertsona eta entitate ekintzaileen erregistroan](#), abantaila batzuk izanen dituzu zergak aurkezteko garaian. Eta gainera jarduera berritzaile bat edo Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategian sartua dagoen jarduera bat egiten baduzu, pizgarri fiskalak izan ditzakezu.

Onura nagusiak hauek dira:

- Ez egotea behartuta PFEZa edo sozietateen gaineko zerga (SZ) ordaintzera
- PFEZean enpresa-jardueraren etekin garbiaren %20ko murrizketa izatea bi urtez
- 12 hilabeteraino eta interesik gabe atzeratzea PFEZaren edo SZaren kuotak

1. Laguntza nagusiak hauek dira:

Generikoak

[Enplegu autonomia sustatzeko dirulaguntzak](#)

[Errelebo-poltsako negozioen eskualdaketa](#)

[Autonomoen kontziliaziorako](#)

[Landa-eremuetan ekintzaile izateko](#)

[Ekonomia sozialeko enpresak sortzeko](#)

[Udalen laguntzak](#)

Sektorialak

[Merkataritza](#)

[Turismoa](#)

[Landa-garapenerako laguntzak](#)

[Merkatuak erregulatzeko laguntzak](#)

2.

[Nire langabezia-prestazioaren aukerak](#)

www.sepe.es

[Kapitalizazioaren ondotik kuotak ordaintzeko laguntza](#)

3.

[Onura fiskalak](#)



Oinarri-oinarrizkoak

Entsalada ekintzaile baterako osagaiak

Zer zerbitzu dauzkazu eskura?




IRAUTEKO oinarrizkoak:

7. Azeleratzaileak
8. Hub-ak
9. Gizarte-erantzukizuna eta berdintasuna
10. Lurralde-oreka / Landa-garapena
11. Finantzaketa eta hazkundera
12. Berrikuntza
13. Ekonomia berdea
14. Eraldaketa digitala
15. Nazioartekotzea




Osagaiak

IRAUTEKO oinarrizko diren hamar



Aurrera egitea eragozten duten zalantzak edo blokeoak agertzen direnean, funtsezkoa da jakitea nora jo dezakezun zure behar, sektore edo filosofiara egokitutako bultzada eta irtenbide espezializatuak aurkitzeko. Zure proiektuak iraun dezan.



Osagaiak

IRAUTEKO oinarrizko diren hamar

7. Ekintzailletza-programak eta azeleratzaileak

[Nafarroa Ekintzaile sareak](#) oinarrizko aholkularitzaren aldean plus bat ematen duten baliabideak ditu. Ekintzailletzako prestakuntza-programak dira (gaitasunak, ezagutzak, trebetasunak, etab.), iraupen eta formatu desberdinetakoak. Intentsiboak, praktikoak eta askotan erronkei lotuak izaten dira, eta lagun-egite edo mentoretza-maila desberdinak izaten dituzte.

Balio dute gaitasunak eta berrikuntza- eta ekintzailletza-trebetasunak entrenatzeko, zure proiektu edo startup-en hedapena bizkortzeko, eta are agente inbertitzaile posibleei aurkezteko.

Adibide batzuk:

www.CEIN.es/aceleradoraideas

www.eihubnavarra.es

www.green.CEIN.es/green-scaleup

www.digitech.CEIN.es/digitech-scaleup

www.pamplona.es/eu/pamplona-emprende

8. Hub-ak

Hainbat agente eta sektore lotzen eta indartzen dituzten ekosistemak dira; berrikuntza irekia eta lankidetzak erabiltzen dituzte lehiakortasun-tresna eta -palanka gisa. Nafarroan badira batzuk:

Sektorial batzuk:

Berrikuntza Digitaleko Poloa

Ingeniaritza eta Teknologiako Huba

EATEX, nekazaritzako elikagaien industriarako huba

NICDO, ikus-entzunezkoen huba

Baduzu ikasteko gune birtual bat, La Huevera, irekia eta doakoa. Izena eman besterik ez duzu egin behar.

www.irisnavarra.com

www.eatexfoodinnovationhub.com

www.nicdo.es



9. Berdintasuna, erantzukizun soziala eta berrikuntza soziala

Osagai hauek ezin dira falta izan! Sarrerak sortzea bezain garrantzitsua da gizartea hobetzea eta ongizate orokorra sustatzea.

Zure konpromisoan sakontzeko, harremanetan jar zaitezke mundu ekitatiboago, jasangarriago eta sozialki arduratsuago baten alde diharduten organismo, entitate eta enprekin.

www.igualdadnavarra.es

www.navarra.es/eu/rsc

www.innovacionsocialnavarra.com/es

www.fundacionesdenavarra.com

www.koine-aequalitas.org

www.equala.es

www.arete-activa.com

10. Lurralde-oreka / Landa-garapena

Nafarroako landa-eremuetan (eta hain landatar ez direnetan) ekintzailatza sustatzea eta laguntzea **tokiko ekintza-talde**en (TET, ADL) esku dago. Haien zeregina lurraldea zaintzea eta dinamizatzea da, gizartea, kultura, ingurumena eta ekonomia batera hartzen dituen ikuspegi batekin.

Haien lana laguntzeko, badira hainbat enpresa-elkarte, profesional eta erakunde, zeinak, ekimen pribatuak izanik, lanean ari baitira despopulatzearen kontra eta gure lurraldeetan eragin berezia duten beste erronka batzuetan.

www.consorcioeder.es

www.navarramedia.es

www.teder.org

www.cederna.eu

Adibide batzuk:

www.elbuenvivir.org

Bilatu gehiago ere!

[Elkarteen eta fundazioen erregistroa](#)



11. Finantzaketa eta hazkundera (I)

Txanpon beraren bi aldeak dira; horregatik sartu ditugu atal berean.

Alde batetik, **Nafarroako Gobernuak**, NL-NEZen bitartez eta **Espezializazio Adimenduneko Estrategia** edo **S4**ren bitartez, laguntza ematen du enpresa-proiektu sendo, berritzaile edo bereizgarriak garatzeko, hauen bitartez:

INBERTSIORAKO LAGUNTZAK: lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.

NL-NEZen KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK.

CEIN: hazi nahi duten enpresentzako prestakuntza-programa espezifikoak.

SODENA Nafarroaren Garapen Sozietateak baditu finantzaketa- edo kapital-lerro batzuk hiru urte baino gutxiagoko enpresentzat.

- Startup hazi-kapitala
- Arrisku-kapitala
- Maileguak eta abalak
- Abalen berrabak, elkarrekiko bermerako sozietateek emanak (Elkargi eta Sonagar)

Bestalde, **estatu mailan**, badira kontuan hartzeko finantza-laguntzak:

ICO (Kreditu Ofizialeko Institutua): autonomo eta ekintzaileentzako maileguak, banku-entitateen bidez bideratuak, enpresa-jarduerak/inbertsioak finantzatzeko, likidezia-beharrak estaltzeko edo beren merkataritza-jardueraren ondoriozko fakturen kobrantza aurreratzeko (merkataritza-kreditua).

www.navarra.es/es/Enpresak-y-profesionales

www.s4navarra.es

www.navarra.es/eu/enpresa-garapena

www.navarra.es/eu/enplegua/enpresak

www.CEIN.es/de-startup-a-scaleup

www.sodena.com

[Hazi-kapitala](#)

[Arrisku-kapitala](#)

[Bestelako finantza-laguntzak](#)

www.ico.es/eu/ico-Enpresak-y-emprendedores



11. Finantzaketa eta hazkundera (II)

Bestalde, **Europako Next Generation funtsak** daude, gure erkidegoan NAFARROA SUSPERTZE PLANEAN aplikatzen ari direnak.

www.nextgeneration.navarra.es/eu

Azkenik, kontuan har daitezke **beste finantzabide batzuk** ere, hala nola:

- **Business angel direlakoak:** Nafarroak sare propiorik ez badu ere, beste eremu batzuetakoetara irispidea izan dezake, haiek ordezkatzeko dituen estatuko elkartearen bidez.
- **Crowdfunding-a edo finantzaketa kolektiboa:** gero eta gehiago erabiltzen den eta ezagunagoa den aukera. Hainbat crowdfunding-plataforma daude. Sartu ondoko estekan ongi aukeratzeko.
- **ESIC NAVARRA inbertsio-foroa:** Negozio Eskola honek harremanetan jartzen ditu ekintzaileak eta startup-ak hainbat enpresa eta bazkiderekin, zeinak gai baitira beren negozioarako finantzaketa, baliabideak eta aukerak emateko eta interesa baitute enpresaren kapitalean parte hartzeko edo balio-aliantzak egiteko.

[AEBAN](#)

Rincón del Emprendedor: [crowdfunding](#)



12. Berrikuntza

Nafarroako Gobernutik, lau laguntza nabarmentzen dira Nafarroan berrikuntzarako:

Berrikuntzarako laguntza publiko espezifikoaren deialdiak.

Berrikuntzarako aholkatzen eta hura finantzatzeko duten organismoak: CEIN eta SODENA

Gobernuaren Gizarte Berrikuntzako Unitatea: Uis, erakunde sozialetan zein esparru teknologikoko erakundeetan berrikuntza SOZIALA lortzeko elkarte publiko-pribatua.

InnovaRSE Sarea: Nafarroako ETEen estrategian eta kudeaketan jasagarritasunaren hiru dimentsioak (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) sartzea helburu duen sare mistoa.

Publikotik harago, Nafarroako ekosisteman badira ezagutu beharreko eragile pribatu eta mistoak, berrikuntzaren bidez balioa emateko konpromisoa dutenak. Hurrengo blokean identifikatuta daude: oinarri berdeen blokean. Bilatu gehiago!

Estatuan, berrikuntzarako laguntzak juridikoak eta finantzarioak dira, eta honako hauek nabarmentzen dira:

OEPM: jabetza industrialeko modalitateak erregistratzeko eta emateko ardura duen organismo publikoa. Badu egoitza fisikoa Iruñean.

NEOTEC: CDTI Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak kudeatzen dituen laguntzak dira. **Ikerketa-jardueratik** abiatuta garatutako teknologiak edo ezagutzak behar dituzten eta negozio-estrategia **teknologiaren garapenean** oinarritzen duten enpresa-proiektu berriak abian jartzea finantzatzeko dute.

ENISA: Lehiakortasuna, garapen teknologikoa edo hedapena handitzeko erabaki estrategikoa hartzean finantzaketa-premiak dituzten ETEei zuzendutako partaidetza-maileguak. Ez da proiektu bat laguntzen, enpresa osoa baizik.

www.navarra.es/eu/berrikuntza

www.CEIN.es

www.sodena.com

www.innovacionsocialnavarra.com

www.innovarsenavarra.es/sistema-innovarse

www.imagoinnovation.com

www.zabala.es

www.oepm.es/eu

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Informacion-industria-jabetzari-buruzko-informazioa-eta-erregistroa>

[Neotec 2024](#)

www.enisa.es



Osagaiak

IRAUTEKO oinarritzko diren hamar

13. Ekonomia berdea eta trantsizio ekologikoa

Gure ingurunea zaintzea, berritzea edo irisgarritasuna erraztuko duten kanal digitalak sartzea ezinbesteko osagaiak dira denboran iraun nahi duen ekintzailetzan eta enpresa-ehunean.

Arlo **publikoan**, badira helburu hori lortzeko zerbitzu eta finantziario espezifikoak, bai eta enpresetan ekonomia zirkularra sustatzeko lankidetzak publiko-pribatuko ekimenak ere.

Era berean, ekimen **pribatuan** gero eta eskaintza handiagoa dago ildo horretan.

www.navarra.es/eu/trantsizio-ekologikoa

www.navarra.es/es/web/nagreen/inicio

www.navarrazirkular.es/eu

www.wearesustainn.com

www.enredarse.com

www.anthesisgroup.com/es/oficinas/pais-vasco-navarra

14. Eraldaketa digitala

Ekonomia, lurraldea, enpresak eta administrazioa digitalizatzeko premia ez du inork eztabaidatzen gaur egun. Pausoa ematen ez duena kanpoan geldituko da.

Nafarroako Gobernuak enpresen eta profesionalen eskura jartzen ditu aldaketa hori errazteko tresnak, azpiegiturak, palankak, gidak eta informazioa.

Gainera, Nafarroan agente digitalizatzaile pribatuak sortzen ari dira, **KIT DIGITALA** programaren bidez.

www.navarra.es/eu/eraldaketa-digitala

www.irisnavarra.com

www.acelerapyme.gob.es/kit-digital



Osagaiak

IRAUTEKO oinarritzko diren hamar

15. Nazioartekotzea

Gobernuak PIN edo **Nafarroako Nazioarteko Plana** sustatzen du, kanpora begira dauden ETEei zuzendua. Baliabide eta laguntza interesgarriak eskaintzen ditu: diagnostikoak, merkatuei buruzko kontsultak, mentoretza-programak, gidak, bekak eta beste asko.

Gainera, **Europa+Cerca programa** ere badago, European Enterprise Network-ek (EEN) finantzatua Kanpo Ekintzako Departamentuarekin, Nafarroako Unibertsitatearekin eta AINekin lankidetzan.

Nazio mailan, berriz, urrats hori eman nahi duten **oinarri teknologikoko** enpresek edo enpresa **berritzaileek** honako programa hau dute, CDTIren bidez:

INNVIERTE. Laguntza ematen die kudeaketa-, ezagutza- eta nazioartekotze-beharretan, bai eta inbertsio-txandak prestatzen eta haietan laguntzen ere, aurrez programa berak homologatutako inbertitzaile pribatu profesionalen aurrean.

Profil **orokorragoa** duten enpresek ICENNEXTera jo dezakete, fakturazio-baldintza batzuk betez gero.

www.planinternacionaldenavarra.es

www.camaranavarra.com

een.ec.europa.eu

www.cdti.es/programa-innvierte

www.icexnext.es



Oinarri-oinarrizkoak

Entsalada-oinarriak

Zer entitatek laguntzen ahal dizute?



- 1. Nafarroa Ekintzaile Sarea
- 2. Toki- eta eskualde-administrazioa
- 3. Ehun enpresarial, asoziatibo eta profesionala
- 4. Gizarte-esparrua
- 5. Hezkuntza eta unibertsitateak
- 6. Finantza-esparrua
- 7. Nafarroatik haratagoko beste sare batzuk



Entsalada-oinarriak

Nafarroa Ekintzaile Sarea



Imajinatu entsaladen buffet askotariko bat, non mota bakoitzak onura jakin bat duen, bere nutrienteengatik edo populazio-talde jakin batentzat egokia delako. Ekintzailetza-ekosisteman parte hartzen duten 60 organismo eta erakunde baino gehiago identifikatu ditugu, horietako asko Nafarroako Gobernuak bultzatutako Nafarroa Ekintzaile sarean bilduta.

Rol desberdinak dituzten erakundeak, oreka emateko eta zure enpresa-nahiak indartzeko lan egiten dutenak.



Entsalada-oinarriak

Nafarroa Ekintzaile Sarea

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
1. Ekintzaileari Laguntzeko Nafar Sarea			
Mistoa	Orokorra Gazteak Emakumeak	Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bultzatuta, 2017-2019ko Nafarroako II. Ekintzailletza Planaren esparruan, Nafarroa osoan barreiatuta dauden izaera ezberdinetako eragile eta erakundeak biltzen ditu. Haren helburua ekintzaileei informazioa, aholkularitza eta orientabidea modu egoki, eraginkor eta homogeneoan ematea da, enpresa eta enplegu berrien sorrera bultzatuz, Nafarroa osoan barreiatuta dauden eragile guztien (mapa honetan eragile guztiak kokatzen dira) jardura koordinatuen bidez. Eragileak gida honetan ere jasota daude, jarraian.	Agenda Aholkularitza Prestakuntza Guneak Ekitaldiak Laguntzak
2. www.navarraemprende.com			
Publikoa	Gazteak Orokorra	Gure erkidegoan ekintzailletzari buruzko erreferentziazko komunikazio-ataria. Ekintzailletzari laguntzeko Nafarroako sarearen eskaintza biltzen du, eta Nafarroako ekintzaile eta autonomoen zerbitzura dauden eduki dibulгатzaile, praktiko eta interesgarriak eskaintzen ditu.	Agenda Prestakuntza Eskualdaketa-poltsa Lokal publiko hutsen poltsa
3. Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzua (Iturrondo)			
Publikoa	Orokorra	Ekintzailletza arloak, Iturrondo agentzian, aholku ematen eta lagun egiten du, modu pertsonalizatuan, negozio-idea zehazten laguntzeko, eredia zehazteko eta bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa aztertzeko. Elkarrizketa egin diogu arduradunari.	Aholkularitza Prestakuntza Laguntzak Azelerazioa



Entsalada-oinarriak

Nafarroa Ekintzaile Sarea

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
4. CEIN (Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa) · www.cein.es			
Publikoa	Orokorra Gazteak Emakumeak	Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren mende dago, eta haren helburua da Nafarroako garapen ekonomikoa indartzea, ekintzailetza berritzailea bultzatuz. Balio horren inguruko proiektu- eta zerbitzu-sorta zabala du. Elkarrizketa egin diogu arduradunari.	Aholkularitza Prestakuntza Guneak Ekitaldiak Laguntzak Azeleratzaileak Berrikuntza Berdea Digitala
5. Cederna - Garalur · www.cederna.eu			
Tokiko ekintza-taldea	Orokorra Emakumeak Merkatariak Enpresak Turismoa Toki-entitateak eta entitate pribatuak	Nafarroako Mendialdean jarduten du, diziplina anitzeko talde batekin, 8 eremutan banatuta. Eskualde horretako garapen sozial eta ekonomikoarekin konprometituta, hainbat eragile sozial eta ekonomikorekin lankidetza estuan aritzen da, landa-eremuetako biztanleria erakarri eta mantenduko duten tokiko garapen-estrategiak martxan jartzeko. Lurraldearen ezagutza handia du eta oso errotuta dago, 30 urte baino gehiagoko historia eta esperientzia izanik.	Aholkularitza Prestakuntza Guneak Ekitaldiak Laguntzak Landa-garapena Berdea



Entsalada-oinarriak

Nafarroa Ekintzaile Sarea

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
6. Teder · www.teder.org			
Tokiko ekintza-taldea	Orokorra Emakumeak Merkatariak Enpresak Turismoa Toki-entitateak eta entitate pribatuak	25 urteko ibilbidea duen irabazi-asmorik gabeko erakundea, Estellerrian 2 egoitza dituen eta bere eskualdeko garapen soziala, ekonomikoa eta ondarezkoa helburu duena. Lan-ildo ugari ditu, haietako bat ekintzailatza sustatzera bideratua.	Aholkularitza Prestakuntza Guneak Ekitaldiak Laguntzak Landa-garapena Berdea
7. Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoa · www.navarramedia.es			
Tokiko ekintza-taldea	Orokorra Emakumeak Merkatariak Enpresak Turismoa Toki-entitateak eta entitate pribatuak	Partzuergoa buru-belarri ari da lanean, duela 30 urtetik, Erdialdeko landa-garapenean. Aurrekoek bezala, hainbat lan-ildo ditu (jasangarritasuna, estrategia parte-hartzailea, merkataritza, turismoa), eta haietako bat ekintzailatza espezializatuta dago.	Aholkularitza Prestakuntza Guneak Ekitaldiak Laguntzak Landa-garapena Berdea



Entsalada-oinarriak

Nafarroa Ekintzaile Sarea

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
8. Eder · www.consorcioeder.es			
Tokiko ekintza-taldea	Orokorra Migratzaileak Merkatariak Enpresak Toki-entitateak eta entitate pribatuak	Nafarroako Erriberaren lehiakortasuna eta garapen sozial eta ekonomikoa sustatuz lelopean, ia 30 urte daramatzate etengabe lanean, beren eremuan zerbitzu eta proiektu berriak txertatuz. Hainbat sektoreri zuzendutako 10 proiektu baino gehiago daude indarrean (ikus-entzunezkoak, komunikazioa, elikadura edo jasangarritasun turistikoa), eta ekintzaile izateko laguntza espezializatua ere badute.	Aholkularitza Prestakuntza Guneak Ekitaldiak Laguntzak Landa-garapena Berdea Digitala



9. Nafarroako Gobernua			
Publikoa	Orokorra	Nafarroako Gobernuak enpresak sortzea bultzatzen du, pertsonekin eta lurraldearekin konprometitutako formulen arabera, krisi ekonomikoak arintzeko eta haietara egokitzeko gai direnak. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak eta Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak zuzenean sustatzen dituzte sustapen-politikak, baina gainerako departamentuek eta mendeko sozietate publikoek ere bai. Honelako ekimenak daude: parte hartzeko organoak, plan estrategikoak, enpresen erregistroak, azokak, laguntzak, prestakuntza, etab. Ikus informazio guztia www.nafarroa.eus webguneko Enpresak eta Profesionalak atalean. www.navarra.es/eu/jarduera-ekonomikoa	Laguntzak Berrikuntza Berdea Digitala Nazioartekoa



Entsalada-oinarriak

Nafarroa Ekintzaile Sarea

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
10. CEN · www.cen.es			
Pribatua	Enpresak	Nafarroako Enpresarien Konfederazioa 1981ean sortu zen. Garapen sozioekonomikoa, enpresak eta enpresaburuak ordezkatzeko eta aldeztu ditu, gizarteari egiten dioten ekarpenari balioa emanez. 49 enpresa-elkartek eta 12.000 autonomo eta enpresak baino gehiagok osatzen dute. Ekintzaileei laguntzen die hasierako fasean edo abiaraztean, AJE afiliatuaren bidez (Nafarroako Enpresari Gazteen Elkartea).	Aholkularitza Prestakuntza Ekitaldiak
11. AJE NAVARRA · www.ajenavarra.com - La Bajera · www.labajera.com			
Pribatua	Gazteak	Nafarroako gazte enpresarien elkarteak hogeit hamar urte darama proiektuak hasten laguntzen, gazteei arreta berezia jarritz. Nafarroako Gobernuarekin eta CENekin elkarlanean aritzen da, eta zerbitzuak programak eskaintzen dizkie bazkideei eta ekintzaileei oro har.	Aholkularitza Prestakuntza Guneak Ekitaldiak
12. ANEL · www.aneles			
Pribatua	Orokorra Gazteak	Nafarroako Lan Enpresen Elkarteak 41 urte baino gehiagoko esperientzia du. Ekonomia sozialeko proiektuak bultzatzen dituzte (mikrokooperatibak, kooperatibak eta lan-sozietateak). Ekintzaileen Kooperatiba da zerbitzu izarra.	Aholkularitza Prestakuntza Guneak (Ekintzailetza-kooperatiba) Ekitaldiak



Entsalada-oinarriak

Nafarroa Ekintzaile Sarea

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
13. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera · www.camaranavarra.com			
Zuzenbide publikoko korporazioa	Orokorra	100 urte baino gehiagoko historia du, eta bere helburuen artean daude ekintzailetzako ekimena sustatzea eta enpresak sortzen laguntzea. Enpresentzako Leihatila Bakarra da 1998tik.	Aholkularitza Prestakuntza Finantzaketa
14. Gaztelan · www.gaztelan.org			
Fundazioa	Migratzaileak Bazterketa- arriskukoak	Zailtasunak dituzten edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea du xede. Aholkularitza, autoenplegua eta besteren konturako lana lortzea lantzen ditu. Lema hau du: Ekonomia solidariotik, gizartea eraldatzen dugu.	Aholkularitza Prestakuntza Laguntzak
15. Iruñeko Udala - Hirigintza			
Publikoa	Orokorra	Alde batetik, Hirigintza Alorrak informazioa ematen du eta zalantzak argitzen ditu, aurrez aurre eta telefonoz, araudiei eta obra- eta irekiera- lizentziak lortzeari buruz, negozioak jendearentzat irekita dagoen lokal bat duenean. Bestetik, Gaztediaren Etxeak , 2019az geroztik, gazte ekintzaileentzako aholkularitza-zerbitzua du, hasierako zalantzak lehen arreta batean argitzeko. Horrez gain, “Lehen urratsen kluba” ere badute. Hasi berriak diren pertsonak osatzen dute kluba, eta haiekin kafe bat har dezakezu, eta haien esperientzietatik ikasi.	Aholkularitza Prestakuntza Guneak



Entsalada-oinarriak

Nafarroa Ekintzaile Sarea

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
16. Tuterako Udala · www.tudela.es			
Publikoa	Orokorra	Ekonomia aktibatzearen alde egiten du, Tuteran enpresa-jarduera berriak sortzea sustatzera bideratuta, laguntzak emanez enpresa-jarduera berriak sortzeko eta merkataritza lokalak berritu, eraberritu eta irekitzeko.	Aholkularitza Prestakuntza Guneak Ekitaldiak Laguntzak
17. Nafarroako Unibertsitate Publikoa · www.unavarra.es/emprendimiento			
NUP Publikoa	NUPeko ikasleak Ikasle ohien komunitatea Irakasleak Besterik	Bi hamarkada daramatza ikasleen berritzeko eta ekiteko trebetasunak eta gaitasunak hobetzen, hainbat programa eta laguntzaren bidez. Elkarrizketa egin diogu arduradunari.	Aholkularitza Prestakuntza Guneak Ekitaldiak
18. Innovation Factory · www.unav.edu/web/innovation-factory			
Unibersitatea de Nafarroa Pribatua	NUko ikasleak Ikasle ohiak Irakasleak Besterik	Programa berritzaile honek 3 ardatz ditu: ikerketa, prestakuntza eta ekintzailtza. Hori guztia, proiektuak laguntzeko inbertsio-funts propio batekin. Elkarrizketa egin diogu arduradunari.	Aholkularitza Prestakuntza Ekitaldiak



Entsalada-oinarriak

Nafarroa Ekintzaile Sarea

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
19. UPTA (Unión de Profesionales y Trabajadores Autónomos de Navarra) · www.uptanavarra.es			
Sindikatura	Orokorra	Irabazi-asmorik gabeko erakundea, Gizarte Segurantzako araubide berezian izena emanda dauden profesional eta autonomoz osatua, jarduera-sektoreka egituratua.	Aholkularitza
20. Nafarroako UGT (Unión General de Trabajadores de Navarra) · www.navarra.ugt.org			
Sindikatura	Orokorra	Nafarroako UGTk autoenplegurako sentsibilizazio-jarduerak eta lehen arreta egiten ditu.	Aholkularitza
21. Nafarroako CCOO (Comisiones Obreras de Navarra) · www.navarra.ccoo.es			
Sindikatura	Orokorra	Nafarroako CCOOk autoenplegurako sentsibilizazio-jarduerak eta lehen arreta egiten ditu.	Aholkularitza



Entsalada-oinarriak

Toki- eta eskualde-administrazioetik

[Nafarroa Ekintzaile](#) Saretik harago, ekintzailetzari laguntza zuzena eskaintzen zaio hainbat esparrutatik.

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
1. Udalak			
Publikoa	Orokorra Ekintzaileak Saltokiak	Udalak toki-entitateak dira, eta beren lurraldeak babesteko eta garatzeko lanean dihardute buru-belarri, eta beren webguneetan izaten eta eguneratzen dituzte zerbitzu eta programak. Ez ahaztu zuri dagokizuna kontsultatzea.	Lehiaketak Prestakuntza Laguntzak
2. CPEN - Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa			
Publikoa	Enpresa publikoak	Enpresa-sektore publikoko elkarte nagusia da. 2010ean sortua da, eta gaur egun 16 enpresa publiko biltzen ditu balio handiagoa sortzeko.	Juridikoa Komunikazioa Finantzak Giza Baliabideak Enpresaren gizarte-erantzukizuna
3. Intia			
Zuzenbide publikokoa	Orokorra Gazteak NEKAZARITZA-sektorea ABELTZAINITZA-sektorea	Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari atxikita dago, eta nekazaritzako elikagaien sektorea transferitzen eta berritzen du, haren bideragarritasuna eta jasangarritasuna hobetzeko, landa-ingurune bizia eta ingurumena errespetatzen duena mantenduz. Nekazaritza-enpresak sortzeko laguntza. Gazteei nekazaritza-sektorean sartzen laguntzen die.	Prestakuntza Aholkularitza



Entsalada-oinarriak

Toki- eta eskualde-administrazioetik

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
4. Iris			
Lankidetza publiko-pribatua NUP	Ekintzaileak Enpresak	Nafarroako Berrikuntza Digitalaren Poloa da, eta helburutzat dauka babestea eta bizkortzea enpresen, enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen eraldaketa digitala, bai eta erraztea ere Nafarroako sektore publikoaren digitalizazioa. Digitalizaziorako leihatila bakarra Nafarroan.	Aholkularitza Prestakuntza Laguntzak Eraldaketa digitala
5. Orizont			
Nekazaritzako elikagaien berrikuntzaren azeleratzailea	Nekazaritza-sektoreko proiektu berritzaileak dituzten ekintzaileak	Berrikuntza disruptiboaren azeleratzaile bat Nafarroako nekazaritzako elikagaien sektorerako. Sodenak kudeatzen du 2015etik. Azken deialdia: 2021.	Erronkak Prestakuntza Sektoreko enpresekiko lankidetza Sariak/Laguntzak
6. Sodena			
Sozietate publikoa	Enpresak Potentzial handia Proiektu berritzaileak	Nafarroako Gobernuaren finantza-laguntzako tresna da, Foru Komunitaterako balio erantsiko enpresa-proiektuak erakartzeko eta garatzeko, eta Espezializazio Adimenduneko Estrategian laguntzen du.	Hazteko Finantzaketa Arrisku-kapitala
7. Gizarte Berrikuntzako Unitatea (GBU)			



Entsalada-oinarriak

Toki- eta eskualde-administrazioetik

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
Lankidetzak publiko-pribatua	Enpresak Erakundeak	Nafarroako Gobernuak bultzatua, berrikuntza soziala sustatzen du enpresa eta erakundeetan. Kasuak, eredua eta metodologia ematen ditu. Material hori klik batera atalean erantsi dugu.	Hazteko Berrikuntza sozialerako Kasuak Metodologia

8. Dédalo

Zuzenbide publikoko fundazioa, Tutera	Orokorra Ekintzaileak Enpresak	Irabazi-asmorik gabe, informazioaren gizartea sustatu, bultzatu eta garatzen du Nafarroa hegoaldean, herritar, enpresa, ekintzaile eta erakundeentzat. Garrantzitsua da haren aholkularitza.	Aholkularitza Prestakuntza Ekitaldiak Eraldaketa digitala
---------------------------------------	--------------------------------------	--	--



Entsalada-oinarriak

Ehun enpresarial, asoziatibo eta profesionaletik

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
1. Elkartek			
Elkartek	Ekintzaileak Enpresak	Nafarroako Gobernuaren bilatzaile honetan aurkituko dituzu Foru Komunitatean dauden elkarte, fundazio eta elkargo guztiak. Gainera, haiekin erlazionatutako izapideak egin ahal izango dituzu beste webgune honetan: www.navarra.es/eu/elkartek-fundazioak-eta-lanbide-elkargoak	Informazioa
2. ADITECH, CNTA, CIMA, CENER, NAITEC			
Zentro teknologikoak	Enpresak	Nafarroak baditu lau zentro teknologiko, esparru hauetakoak: Elikagaien Teknologia eta Segurtasuna, Ikerketa Mediko Aplikatua, Energia Berriztagarriak eta Automozioa eta Mekatronika. Laurak elkartzen dira ADItech-en.	Aholkularitza I+D+B Zerbitzu teknologikoak Prestakuntza Ekitaldiak Publikazioak
3. AIN - Nafarroako Industriaren Elkartea			
Elkartea	Enpresa industrialak	60 urte Nafarroako industriari laguntzen, berrikuntzaren eta etengabeko hobekuntzaren kultura mantentzeko ardurarekin. Zerbitzu berriak bultzatzen dituzte, enpresen behar berriak hautemateko proaktibotasunean oinarrituta. Europar Batasuneko proiektuak.	Aholkularitza Ingeniaritza Laguntza teknikoa Hautaketa Prestakuntza



Entsalada-oinarriak

Ehun enpresarial, asoziatibo eta profesionaletik

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
4. AMEDNA			
Nafarroako Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartea	Enpresariak	AMEDNA-NEEZEk Nafarroako emakumezko enpresaburu eta zuzendariak ordezkatzeko dituen erakundea izan nahi du, haien interesen, garapenaren eta lehiakortasunaren defentsa, ordezkaritza eta sustapena bere gain hartuz alor enpresarial, profesional eta sozialean.	Aholkularitza Orientazioa Sareak Topaketak Kontziliazioa Prestakuntza Ikasketak Sariak
5. Alde Zaharra, Zabalgunea, Latxan, Denokbat, beste asko...			
Merkatarien elkarteak	Elkartekideak eta ekintzaileak	Merkataritzak bizia ematen die gure auzo eta herriei. Mota horretako erakundeek egiten duten lana funtsezkoa da talde-kanpainak diseinatzeko eta dinamizatzeko, identitate propioarekin, bai eta beti egunean egoteko prestakuntzarekin ere. Zure proiektua lerro horretan sartzen bada, jakin ezazu zein elkarte zenukeen interesgarriena. www.cascoantiguopamplona.com www.areacomercial.com www.latxan.info www.denokbat.eus	Aholkularitza Prestakuntza Kanpainak Deskontuak Etab.



Entsalada-oinarriak

Ehun enpresarial, asoziatibo eta profesionaletik

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
6. Atana			
Teknologia Klusterra	Teknologia-sektoreko enpresak Berrikuntza-aholkulariak	Haren xedea da Nafarroaren lehiakortasuna handitzea eta haren garapena bultzatzea, partaidetzazko kudeaketa-sistema baten bidez, zeinean enpresa elkartuak proiektu berritzaileetan murgiltzen baitira.	Informazioa Ekitaldiak
7. AES, AEZMNA, AER, LASEME			
Lurraldeko enpresa-elkarteak eta -antolakundeak	Sakanako Estellerriko Erdialdeko Erriberako enpresak	Irabazi-asmorik gabeak eta sektore anitzekoak, enpresen lehiakortasuna eta berezitasuna sustatzen dute beren eremuetan: Sakana, Estellerria, Erdialdea eta Erribera.	Informazioa Prestakuntza LAP Ekitaldiak Jasangarritasuna
8. CEPES Nafarroa			
Ekonomia Sozialeko Enpresarien Konfederazioa	Enpresak	Nafarroako ekonomia sozialeko familiak ordezkatzeko dituzten erakundeak biltzen ditu.	Aholkularitza Ekitaldiak Lan instituzionala
9. CITI Nafarroa			
Nafarroako Ingeniaritzako Gradudunen eta Industria Ingeniari Teknikoen Elkargoa	Profesionalak Elkartuak	Profesionalen elkargoak profesionalen arteko topaguneak dira, eta lana garatzeko zerbitzu oso interesgarriak eskaintzen dituzte. Bilatu dagokizun elkargo profesionala eta informatu eskaintzen dizutenari buruz.	Aholkularitza Prestakuntza Coworking Erosketa-klubak



Entsalada-oinarriak

Ehun enpresarial, asoziatibo eta profesionaletik

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
10. Nafarroako Industria Fundazioa			
Fundazioa	Enpresak	Kluster transektoriala, 2014an Nafarroako Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialak eta Nafarroako Industria Ingeniarien Elkartek sortua. Haren lema “Ezagutza partekatuaren balioa” da.	Gaikako mahaia Ekitaldiak OTDChallenge
11. Nafarroako Fundazioak			
Elkartea	Pertsona filantropikoak eta ekintzaileak	Zure ekintzaileak interes orokorra badu eta irabazi-asmorik ez baduzu – hau da, zure helburua aberastasuna helburu sozial horretan berrinbertitzea bada–, egokitu litekeen formula fundazio bat da. Nafarroako fundazioak batu egin dira giharra irabazteko eta aukera berriak sortzeko.	Aholkularitza Prestakuntza Kudeaketan laguntzea
12. Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa			
Fundazioa	Enpresak Erakundeak	Erakunde guztietan kudeaketa-jardunbide egokiak eta bikaintasun-ereduak sustatzea du lana. Aholkatzen, gaitzen eta etengabeko hobekuntzan egindako ahaleginak aintzatesten dituzte.	Aholkularitza Prestakuntza Ekitaldiak
13. Iddeas			
Berrikuntzarako eta Gizarteratzeko Fundazioa	Enpresak Erakundeak Ikastetxeak	Gizarteratzea, irisgarritasuna eta diseinu unibertsala enpresa eta erakunde guztietan errealitate izan daitezen sustatzen du.	Ikerketa Aholkularitza Prestakuntza



Entsalada-oinarriak

Gizarte-arlotik

Abisua nabigatzaileei! Ez daude diren guztiak, baina dauden guztiak badira.
Atal honetan baliabide asko daudenez, tresna eta erakunde adierazgarrienak edo zeharkakoenak bakarrik erakutsiko ditugu.

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
1. ACH (Gosearen Aurkako Ekintza)			
GKE Soziala	Ekintzaileak Gazteak	Erakunde humanitario globala, egoitza Iruñean duena. Ekintzailletza zuzenean babesten du gizarteratzeko eta laneratzeko tresna gisa. Gazteentzako, Generación INN programa www.accioncontraelhambre.org/es/somosgeneracionin	Aholkularitza Prestakuntza Finantzaketa
2. Gurutze Gorria			
GKE	Migratzaileak edo bazterketa-arriskuan daudenak	Enpleguaren bidez integratzeko lanean, aholkuak ematen ditu eta autoenpleguaren munduan sartzeko modua ematen du.	Aholkularitza Prestakuntza
3. Ilundain			
Fundazioa	Gazte zaurgarriak	Egoera zaurgarrian dauden gazteei laguntzen die, haien gizarteratzea eta laneratzea erraztuko duten aukera berriak sortuz.	Informazioa Prestakuntza
4. Nafarroko Ijito Idazkaritza			
Fundazioa	Enplegu-eskatzaileak, lehentasunez ijitoak	Eskubide eta aukeren benetako berdintasunean eta diskriminazioen desagerpenean oinarritzen du bere lana.	Aholkularitza Prestakuntza



Entsalada-oinarriak

Hezkuntzatik eta unibertsitateetatik

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
1. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua (LH)			
Publikoa	Lanbide Heziketako zentroak Izaera sozial, kultural edo teknologikoko entitateak	Ekintzailletza-gelak edo INIZIA Nafarroan. Bi urteko ibilbidea duen proiektu pilotua. Arduraduna elkarrizketatu dugu, Diego Huarte . INIZIA PLANA Kontsultatu Gozagarriak atala	Enpresek eta gizarte-erakundeek bultzatutako benetako erronkak Motibazioa
2. Nafarroako Unibertsitate Publikoa			
Zuzenbide publikokoa	Ikasleak Ikertzaileak Irakasleak Alumni Komunitatea	NUPeK urteak daramatza espiritu ekintzailea sustatzen, ekintzailletza-eta berrikuntza-konpetentzietan trebatuz eta oinarri teknologikoa eta ezagutza duten ekimenak babestuz merkatura egiten duen jautsian. Horren berri zehatza izateko, Enpresa, Ekintzailletza eta Berrikuntzako Errektoreordetzako arduraduna elkarrizketatu dugu: Cristina Bayona . NUP. Ekintzailletza Kontsultatu Gozagarriak atala	Prestakuntza Aholkularitza Finantzaketa Tutoretza Sustapena Ekitaldiak Lehiaketak Inbertsioa startup-etan



Entsalada-oinarriak

Hezkuntzatik eta unibertsitateetatik

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
3. Nafarroako Unibertsitatea			
Pribatua	Ikasleak Ikertzaileak Irakasleak Alumni Komunitatea	Urteak daramatza gene ekintzailea inokulatzen, ekintzailetza- eta berrikuntza- konpetentzietan trebatuz eta oinarri teknologikoa eta ezagutza duten ekimenak babestuz merkatura egiten duen jautsian. INNOVATION FACTORY Berrikuntza eta Ekintzailetza Zentroarekin egiten dute hori. Horren berri zehatza izateko, Belen Goñi zuzendariarekin eseri gara. IESE Business School Kontsultatu Gozagarriak atala	Hackaton Fast track GPEI Innovation Day Azeleratzaileak Enpresa handien eta startupen arteko kidetza Inbertsioa startupetan



4. ESIC + Nafarroako Marketin Kluba			
Negozio Eskola + irabazi-asmorik gabeko elkarteak	Gazteak Profesionalak Enpresak	Bi erakundeek indarrak batu zituzten 1995ean, eta enpresa-garapenaren eta talentuaren alde jarduten dute prestakuntzaren bidez, ekintzailetza- eta berrikuntza-balioak bereziki azpimarratuz.	



Entsalada-oinarriak

Finantza-esparrutik

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
1. Rural Kutxa			
Bankua	Ekintzaileak Gazteak Unibersitatea	Ekintzailtza-programetan parte hartu ohi du, bere finantza-produktuekin edo unibertsitateekin, zentroekin eta hainbat ekitaldirekin lankidetzan Gaur egun, INICIA programaren bidez laguntzen du.	Gidak Finantzaketa
2. Gaztempresa			
Laboral Kutxaren Fundazioa	Ekintzaileak Gazteak	Enplegua sortzea eta sendotzea errazten duten ekimenak babesteko eta ekintzak garatzeko helburu espezifikoarekin sortua. Nafarroakoan eta Euskal Autonomia Erkidegokoan dihardu.	Finantzaketa
3. La Caixa			
Fundazioa	Ekintzaileak	La Caixak, bere fundazioaren bidez, enpresak sustatzeko eta sortzeko ekintzak babesten ditu. Hasteko finantza-produktu espezifikoa MicroBank da. www.microbank.com	Finantzaketa
4. Triodos			
Banka etikoa	Autonomoak Enpresak	Finantzetatik mundua eraldatu nahi duen bankua.	Inpaktu-finantzaketa



Entsalada-oinarriak

Finantza-esparrutik

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
5. Clave Capital			
Arrisku-kapitalaren kudeatzailea	Sektoretako enpresak: Health Agro Energia Growth	20 urtetik gorako esperientzia. 90 inbertsio baino gehiago egin dituzte. Parte-hartze handia dute enpresa partaidetuen estrategian eta kudeaketan. Teknologia transferitzeko proiektuak, industriako ETEak eta energia berriztagarrien proiektuak bultzatzen dituzte.	Arrisku-kapitala Mentoring-a
6. Elkargi			
Elkarrekiko bermerako sozietatea	Enpresak	Elkargik Nafarroako ekoizpen-ehunaren finantzaketa-gaitasuna hobetzen du Sodenarekin sinatutako hitzarmenari esker.	Abala
7. Sonagar			
Elkarrekiko bermerako sozietatea	Enpresak	Nafarroako enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen hazkunde eta garapen ekonomikoa sustatzen du, Sodenarekin lankidetzan berak ere, eta berme pertsonalak ematen dizkie Sodenarekin bat egiten duten enpresa txiki eta ertainetako titularrei.	Abala



Entsalada-oinarriak

Nafarroatik haragoko beste sare batzuetatik

erakunde-mota

norentzat

deskribapena

zer eskaintzen du?

1. Nafarroako Eskualdeko Nekazaritza Bulegoa (OCA) · www.redruralnacionales.es

Publiko Sarea	Landa eremua Orokorra Gazteak Emakumeak	Landa Sare Nazionalean integratua eta LANDA GARAPENeko PLANAK (PDL) garatzeko laguntza ematen espezializatua. Deialdi berriena 2022ra arte egon da indarrean. Azterlan eta txosten interesgarriak ditu.	Aholkularitza Prestakuntza Topaketak Publikazioak
----------------------	--	--	--

2. PAE Sarea, Ekintzailetzari Arreta Eskaintzeko Guneak <https://paeelectronico.es/es-es/Paginas/Home.aspx>

Publikoa	Orokorra	Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak abalatua, Nafarroak zazpi PAE puntu ditu, eta ekintzaile izan nahi duten pertsonetan espezializatutako zerbitzu-karta bat, arau-informaziotik hasi eta altak eta dirulaguntzak bideratzeraino. PAE bilatzailea	Aholkularitza
-----------------	----------	--	---------------

3. ONE sarea (Ekintzailetza Bulego Nazionala)

Publikoa	Startup-ak	Gobernuaren ekimena, Red.es-ek abian jarria, Espainia Nazio Ekintzailea estrategiaren esparruan sortu zena, ekintzailetza-ekosistema osoari euskarria eta laguntza emateko. one.gob.es/es	Ekintzailetza mapa Laguntza Autodiagnostikoa Gehiago
-----------------	------------	---	---



Entsalada-oinarriak

Nafarroatik haragoko beste sare batzuetatik

erakunde-mota	norentzat	deskribapena	zer eskaintzen du?
4. Innovactoras			
Generoa	Orokorra Gazteak Emakumeak	Berrikuntzaren inguruan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna izatearen alde. Gaur egungo emakume berritzaileak, XXI. mendeko errealitate desberdinetatik mundu hobe bat eraikitzeko jarrera eta gaitasuna dutenak: Zientzia, Teknologia, Enpresa, Hezkuntza eta Gizartea. NBEk saritua 2020an.	Liburu istorioduna Onlineko denda Buletina Opariak
5. Reas Navarra			
Ekonomia solidarioa	Gizarte-erakundeak Orokorra	25 urte baino gehiago pertsonak erdigunean jartzen dituen ekonomia bat sustatzen. Kopurutan, 15 lurralde-sarek, 4 sektore-sarek eta ia 1.000 erakunde eta enpresak osatzen dute.	Topaketak Merkatu soziala Sentsibilizazioa Kontsumo arduratsua Kontinentearteko aliantzak
6. Incorpora			
Enplegua gizarteratze gisa	Orokorra Gazteak	La Caixa Fundazioarekin, sare honek 410 gizarte-erakunde ditu, lurraldeka 20 taldetan banatuak. Sareko elkarlana funtsezkoa da efizientzia eta eraginkortasuna sustatzeko, enpresen eta pertsonen beharrei erantzunez.	Método propio
7. Innovasocial			
Soziala	Gizarte-erakundeak Enpresak	La Caixa Fundazioa eta Nafarroako Kutxa Fundazioa buru direla, berrikuntza hurbiltzen die gizarte-erakundeei, Nafarroan Garapen Jasangarriko Helburuak sustatzeko eta lortzeko tresna gisa.	Prestakuntza Topaketak Proiektuetarako dirulaguntzak



Oinarri-oinarrizkoak

Gozagarriak

Pertsonak.

Elkarrizketak funtsezko eragileekin:



- Erakundeak
Hezkuntza eta unibertsitateak
- Ekintzaileak



Gozagarriak

Elkarrizketak funtsezko eragileekin

> Eva Ontoria del Cura

Eva Ontoria del Cura

Nafar Lansare-
Nafarroako Enplegu
Zerbitzua

Enplegua Sustatzeko
eta Enpresentzako
Zerbitzuetarako
Zerbitzuko zuzendaria

Kaixo, Eva. Azalduko diguzu zergatik den garrantzitsua ekintzaileek ekintzailetzako profesionalen laguntza bilatzea?

Ekintzaile gehienek ez dituzte behar bezala aztertzen beren proiektuaren martxa onean eragina duten faktore guztiak. Aurren-

aurrenekoan zentratu ohi dira: tramiteak, laguntzak, betebeharrak fiskalak eta forma juridikoak.

Baina, negozioek funtziona dezaten, arriskuak murrizteko, beste enpresa edo ekimen batzuetatik bereizteko edo berritzeko, hainbat alderdi landu behar dira, "pertsiana ireki" eta merkatuari aurre egiten dioten unean jada konponduta egon daitezen.

Horretarako, baditugu profesionalak espezializatuta daudenak galderak egiten, zalantzan jartzen, aztertzen, ezagutza helarazten... hala ekintzaileek beren ideiak orekatu eta hobetu ditzaten.

NL-NEZek, Nafarroako Gobernuaren enplegu-arloko erakunde gisa, besteak beste, aholkularitza ematen du Iturondoko bere agentzian eta [Nafarroa Ekintzaile](#) sarearen



bitartez, horretan nabarmentzen direla batez ere CEIN eta toki-garapeneko eta enpleguak lau eragileak, ahalik eta kalitate handieneko enplegua sortzeko helburuarekin.

Beraz, ekintzaile izateak arriskuak dakartza...

Bai, eta asko. Ekintzaile izatea zaila da. Gutxitan hitz egiten da horretaz edo gardentasunez azaltzen. Ekintzailetzako porrotari buruzko zifrak hobetzen ari dira, baina oraindik ere maila

altuan gaude. Horregatik da garrantzitsua, berriz diot, ahal den prebentziorik handienarekin hartzea ekintzailetzaren B aldea, horri aurre egiteko tresnak eta taktikak eskuratuz.

Eta nola egiten duzue, nola lortzen da ekintzaile izatean arriskua gutxitzea?

Ez dago formula magikorik, baina bai jarraibide batzuk: ideia bat eta negozio-idea bat bereiztea, eta jakitea zer hartu behar duan kontuan enpresa bideragarria izan dadin edo nola bilatu bezeroak eta haiek mantendu, etab.

Ekintzailea autoenplegu-beharrez hasi edo zerbait disruptiboa egin nahi delako hasi, beti ahalik eta informazio gehien eskuratu behar da pertsiana ireki aurretik.

Ekintzailetzako teknikarien zeregina da begirada zabaltzea eta bideragarritasun-aukerak areagotzea.



Gozagarriak

Elkarrizketak funtsezko eragileekin

> > **Eva Ontoria del Cura**

Proiektua onduta dagoenean, azelerazio-saioak izaten ditugu, lehenbailehen merkatura atera daitezten.

Zifra batzuk eman ditzakezu oraingo egoeraz?

Iturrondon ia 400 pertsona artatzen ditugu urtean. Sare osoan, ia 2.000. Baina errealitatea da autonomoen araubidean alta ematen duten guztiek ez dutela, adibidez, aurretik aholkularitza estrategikoa eskatu, eta hori gehienetan ezjakintasunagatik gertatzen da. Enplegu Planak eta ekintzailtza planek hobetzera bultzatzen gaituzte.

Hitz egiguzu etorkizunaz, eta adierazi desio bat Iturrondorako...

Garrantzitsuena: nahi dugu ekintzaileek jakin dezaten badela sare profesional bat lagun egin diezaiokeena.

Gainera, NL-NEZek Nafarroan dauden agente eta baliabide guztien arteko koordinazioa hobetzeko lan egiten du, baita esfera publiko-pribatuen artekoa ere, enpleguari laguntzeko eta gure gizartearen erronkak konpontzen lagunduko duten enpresa, erakunde edo negozio-ildo berriak sortzeko.

Horretarako, aurten NL-NEZek Enplegurako Orientazio, Ekintzailtza, Lagun-egite eta Berrikuntza Zentro bat (COE) du.



Gozagarriak

Elkarrizketak funtsezko eragileekin

Uxue Itoiz

Uxue Itoiz CEIN Zuzendari kudeatzailea

Kaixo, Uxue. Azalduko diguzu zer den eta zertan aritzen den CEIN?

Negozio-ideia bat duten pertsona guztiei lagun egiten laguntzen diegu, bai hasierako fasean daudenei, bai aurreratuagoei, hau da, oso berritzaileak edo hain berritzaileak ez direnei.

Gure fokua argia da: Nafarroan ekintzaile izan eta enpresa sortu nahi dutenei laguntzea edo jada martxan dagoen proiektu bat handiaraztea, bereziki osagai berritzaile bat badu.

Horretarako, ibilbide desberdinak eskaintzen ditugu, ideia-mota bakoitzaren beharretara egokituak.

Eta, gutxi gorabehera, zenbat pertsona artatzen dituzue urtean? Zifra azkar batzuk CEINen argazki bat egiteko?

Gure RUTA 31 programan, edozein sektore eta motatako proiektuei irekita egonik, urtean 400 ekimeni baino gehiagori ematen diegu arreta, eta horietatik % 20 inguru enpresa bihurtzen dira.

Ehuneko hori %23ra igotzen da negozioak sortzen laguntzeko gure programa guztien emaitzak batzen ditugunean, eta horrek aukera ematen digu urtero 110 bat enpresa martxan jartzen laguntzeko.



Eta sektoreei dagokienez, zein dira garrantzitsuenak?

Enplegu gehien biltzen duen sektorea osasunarena da, eta hori estrategia baten ondorio ere bada: Osasuna, Digitala, Jasangarritasuna eta Nekazaritzako Elikagaiak proiektu bertikalei laguntzeko estrategia.

Ekintzailetzari laguntzeko azken fasean mintegiak daude, eta bi ditugu: Noaingo, sektore anitzekoa, eta Agro haztegia, Tuterakoa.

Bi mintegietan 260 enpresak baino gehiagok hartu dute ostatu martxan jarri zirenetik, eta sartu

eta hiru urteren buruko biziraupen-tasa %82koa da batez beste.

Urtero 44 startup inguru egoten dira inkubatuta, eta batez beste 10 sarrera eta beste horrenbeste irteera izaten dira urtean. Nagusi diren sektoreei dagokienez, nekazaritzako elikagaiak, osasuna, teknologia eta jasangarritasuna ditugu, baina egia da jasangarritasuna eta digitalazioa transbertsalagoak direla eta ezinbestekoak direla handitu eta eskalatu nahi duten startup guztietan.

Eta zein da Nafarroan ekintzailearen profila? Eta ekintzaikletza-mota?

Ekintzailetza gazteekin lotu ohi da, baina batez besteko adina 41 urte ingurukoa da. Gure eskualdean dugun ekintzailetza-motari dagokionez –eta horrek bereizten gaitu estatuko eta Europako



Gozagarriak

Elkarrizketak funtsezko eragileekin

> Uxue Itoiz

beste eskualde batzuetatik-, ekintzailletza finkatuaren ratioa (42 hilabeteren burukoa) dugu bereizgarri nabarmen. Zergatik? Ekintzaileek aukerei helduta ekiten diotelako.

Enpresek arrakasta-bermerik handienak izan ditzaten lan egiten dugu, negozio-ereduaren azterketa sakon baten bidez. Horri esker, ikus daiteke eskaera sendoa, iraunkorra eta etengabe hazten ari dena dagoela.

Mintza gaitzen orainaz...

Ekintzaile izateko une egokian gaude, teknologia gure errealitatea erabat aldatzen ari baita eta oraindik asko baitago deskubritzeko. Trantsizio bikoitz baten aurrean gaude: ekologikoa eta digitala.

Ekologikoan pentsatzen badugu, eredu energetikoaren aldaketa

baten aurrean gaude, ekonomia zirkularrerako aurrerapausoa, agrotech sektorean aldaketa bat, eta abar.

Eta, jakina, aldaketa horrekin batera trantsizio digitala ere egin behar da: lan egiteko modua aldatu behar da, datuak aztertu behar dira, erabakiak hartzeko ereduak ezarri behar dira... Argi dago horrek erronka handia dakarrela.

Hala eta guztiz ere, erronketan aukera handia dago lehendik dagoena hobetzeko, negozio-ereduetan aldaketa azkarrak izan baitira, denbora luzean izan ez ditugunak.

Mintza gaitzen etorkizunaz...

Aukera bakarra dago: enpresek gero eta gehiago digitalak eta jasagarriak izan beharko dute. Jasagarritasuna eta digitalizazioa zeharkakoak izanen dira, eta



proiektu eta enpresa guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, kontuan hartu beharko dituzte.

Eta CEINerako desio bat...

CEINek jarraitu dezala aldaketarako motorra eta Nafarroako gizartearentzako erreferentzia izaten. Gure zeregina ez da soilik prestakuntza eta aholkularitza ematea; pertsonak, enpresak eta erakundeak konektatzen jarraitu nahi dugu, tokian tokikoa gainditzen duten eta maila nazional eta nazioartekoetara iristen diren

loturak sortuz. Hori guztia helburu argi batekin: berrikuntza bultzatzea eta gure komunitatean benetako inpaktu ukigarria sortzea.



Gozagarriak

Elkarrizketak funtsezko eragileekin

> **Diego Huarte**

Diego Huarte

**Hezkuntza
Departamentua.
Nafarroako
Gobernuko Lanbide
Heziketaren
Antolamendu eta
Ebaluaziorako Atala
Inizia Planaren
arduraduna**

Kaixo, Diego. Azalduko diguzu non gauden eta zertan datzan zure lana?

Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusiaren barruan, LHko Ekintzailatza Gela arduraduna naiz; Nafarroan, INIZIA PLANA deitu dugu. Ekintzailatza ohiko irteera profesionala da Lanbide

Heziketaren munduan, batez ere zenbait lanbide-arlotan. Nahiz eta urteak daramatzagun hori sustatzen [Inizia](#) plana zehazki berri samarra da. Duela 2 urte sortu zen, eta Hezkuntza eta LHko Ministerioak pandemiaren ondorioekin abiarazi zituen Ekintzailatza eta Lanbide Heziketako ikasgelen Nafarroako aplikazioa da.

Ikasleen eta irakasleen ekintzailatza-gaitasunak eta -konpetentziak garatzea hiru premisaren arabera: errealitatearekiko harremana, proiektu ez-finalista, eta, azkenik, gizartean inpaktu positiboa bilatzea. Hiru alderdi horiek “zuzentzen edo inspiratzen” dute programaren diseinua eta garapena hemen, Nafarroan, eta horiek bereizten gaituzte beste erkidego batzuetan egiten ari direnetik.



Eta nola funtzionatzen du?

Kanpoko sozietate batek erronka bat planteatzen dio ikastetxe bati.

Bere egunerokoan duen benetako arazo bat da, ikasten ari den lanbide-arloekin lotura duena.

Bi ezaugarri horiekin, errealitateari eta lotura daude. Soluzioak hainbat proiektu ekartzen ditu berekin, eta horiek lantzen dira ikastaroan, bi espezialitatetako irakasleen koordinaziopean: ekimen ekintzailekoa eta arlo teknikokoa.

Ez dira proiektu finalistak, hau da, helburua ez da bukatzean enpresa bat eratzea, baizik eta ikasleak kontziente izatea egin dezaketen eta egiten dakiten guztiaz, eta haien soluzioak bizi-kalitate hobea edo kolektibo bati eragin positiboa ematea. Ez dago jendea erakartzeko eta motibatzeke modu hoberik. Ikasleak lokomotor bihurtzen dira.

Zenbat ikastetxe ari dira parte hartzen?

15 ikastetxe, 16 proiektuekin, Burlatako Clk 2 baititu.

Eta zenbat kanpo-erakunderekin edo gizarte-erakunderekin?

Gaur egun 11 ditugu, eta irekita daude gehiagorako.



Gozagarriak

Elkarrizketak funtsezko eragileekin

> **Diego Huarte**

Eta nolako erronka proposatzen da?

Izan daiteke arazo bat, edo dagoeneko egiten den zerbitzu bati buelta ematea, edo tresna berri bat diseinatzea... horrelako gauzak.

Bi adibide kontatuko dizkizuet: Lehena Lizarrako San Jeronimo klinikakoa da. Klinika horrek atek zabalik uzten ditu, adineko egoiliarretako askok giltzak galtzen edo ahazten dituztelako, eta horrek pribatutasun falta edo are lapurretak ekartzen ditu. Hain gauza sinplea eta arrunta.

Bada, Humani Elkartek, Julen Etxebeste buru zuela, Donibane zentroari proposatu zion eskumuturreko "ate-irekitzaile" bat egitea, RFID teknologiarekin. Ikasleek egoitza bisitatu dute, egoiliarrei eta langileei hitz egin eta entzuten diete... Errealitate hori bertatik bertara ezagutzen dute, eta probak egiten dituzte garatzen doazen prototipoekin.

Proiektu horren barruan, ADACE Kalte Zerebralaren Elkartarekin egin zuten topo, zeinak arazo bera baitu eta gainera mugikortasunarena. Orain, ikasleak probak egiten ari dira gurpil-aulki batetik, buru-belarri hobekuntzan murgilduta.

Beste alde batetik, pentsa daiteke nor gehiago interesatuko litzaiokeen hori merkataritzaren ikuspegitik, zenbatean saldu litekeen... Baina zati horrek ez du aurreko faseek adinako garapenik.

Beste kasu bat. Nekazaritza eta Basogintza Ikastetxe Bateratua zinemako filmazioetan CO2-a neurtzeko tresna bat egiten ari da, eta Kultura Departamentuarekin lanean ari gara, Nafarroa filmaketak asko sustatzen ari delako eta horretarako legedi bat prestatzen ari delako.

Gure ikasleak filmaketa batean egon dira, Bardeara joan dira eta ikusi dute eremu babestu



batean 300 pertsonak nolako inpaktua sortzen duten kamioiekin, jendearentzako autobusekin, cateringarekin, plastikozko botilekin, sorgailuekin; zine zuzendari batekin hitz egiteko aukera izan dute, eta horrek guztiak duen arazoa kontatu die.

Nafarroan inork ez du egiten. Tresna hori badago kanpoan, baina ez hemen.

Beraz, lan egiteko modu horrek gehiago motibatzen ditu ikasleak...

Eta irakasleak, zeren eta proiektu horietako asko egiten ari zirelako

lehenik, askotan mesedeei esker, sektoreko ezagunei esker, aparteko orduetan. INIZIAk aukera eman digu hori kondizio egokiagoetan egiteko, baliabideak eta ikusgaitasuna emateko. Eta hori irakasleentzat laguntza handia da.

Desio bat INIZIAren etorkizunerako...

Proiektu pilotu gisa bi urte igaro ondotik, lan-esparru hori baliozkotzen duten emaitzak ikusten hasi ginen, nire ustez. Horregatik, ikastetxe gehiago eta kanpoko erakunde gehiago gonbidatu nahi nituzke hartan parte hartzera.



Gozagarriak

Elkarrizketak funtsezko eragileekin

> Cristina Bayona

Cristina Bayona Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Kaixo, Cristina. Azalduko diguzu zer harreman dagoen NUPen eta ekintzailtzaren artean?

NUPen eta ekintzailtzaren arteko harremana aspaldikoa da eta iraunkorra. 1996an hasi zen, Alfonso Carlosenak inkubagailu bat sortzearekin eta CEINekiko lehen lankidetzak hastearekin, ohiko aliatua baita arlo horretan. Areagotu egin zen 2006an, LUCE martxan jarri zenean.

Ordutik, Unibertsitateak zeregin garrantzitsua du ekintzailtzaren kultura sustatzeko. Ekintzailtza

naturalki sor dadin unibertsitate-ikasle batengan, ikuspegi honekin egiten dugu lan: izan dezatela ekintzaile-espirtua, izan daitezela sortzaileak, kritikoak, tresnak eskura ditzatela buru irekiagoa izateko, eta gero, batek daki, laguntzen ahal diegula beren enpresa muntatzen.

Eta, gaur egun, nola lantzen da ekintzailtza hemendik?

Bi kolektibo desberdinekin egiten dugu lan: ikasleak eta ikertzaileak. Eta, bestetik, 3 motatako jardueraplanak ditugu, bai publiko batentzat, bai bestearentzat: ekintzailtza-ideien sustapena, prestakuntza eta laguntza.

Ikasleen artean ekintzailtza sustatzeko, enplegua eta ekintzailtza hobetzeko plan



integral bat dugu, PIMEE. Autopertzepzioko 360 °-ko testa egiten dugu ikasketak hastean, eta amaitzean errepikatzen dugu; testak neurketa bat ematen du garapen pertsonaleko zeharkako 14 gaitasunetan. Karreran zehar, prestakuntza-plan bat eskaintzen da 6 gaitasun hartzen dituen (10 orduko bakoitza). Duela gutxi sartu ditugu gaitasun digitala eta garapen iraunkorrekoa. Hori titulu propio batean islatzen da, eta, testarekin batera, lana bilatzeko aurkezpen-gutun gisa erabil

daiteke. Testa ikasleen %50 inguruk egiten du, bai 1. mailan bai 4.ean. Eta prestakuntza-ibilbidea, berriz, 100 bat lagunek.

Ibilbide osoa 2 aldiz egin da orain arte. Kopuruek adierazten dutenez, pertzepzioak hobera egin du pixka bat. Kontuan izan behar da heltzen goazen neurrian kontzienteago garela gure gabeziez.

Ez da atal horretako programa bakarra; TALENT UPNA izeneko titulu propio bat ere eskaintzen dugu ikasle ohientzat, gaitasunetako prestakuntza eta enpresako praktikak konbinatzen dituen.

Gainera, oso ezagunak diren lehiaketetan ere parte hartu ohi dugu: YOUTH, EXPLORER, etab.

Azkenik, pertsona ekintzaileen KLUB bat ere badugu, arlo



Gozagarriak

Elkarrizketak funtsezko eragileekin

> Cristina Bayona

honetan ekintzaile izan diren edo paper interesgarria duten 20 bat graduatuk osatua.

Prestakuntzarako, CEINen eskutik goaz (ikasleak, ikerketako langile berriak, doktore-tesiak, etab.).

Hainbat gai lantzen dira: osasuna, digitala, zirkulartasuna...

Eta, azkenik, **enpresa-ekimenak babesteko**, ikertzaileen kolektiboan zentratzen gara. 2012tik, spin-offen sorrera babesteko erregelamendu bat dugu, ikerketaren emaitzen fruitu.

Unibertsitateak laguntza eman du enpresa edo spin-off horietako 12 sortzeko, guztiak "biziak", eta haietako 11tan kapitalean parte hartzen dugu. Talde sustatzailea irakaslez osatuta egon ohi da eta Gizarte Kontseiluak onartzen ditu.

Partaidetza 5-10 urte bitarte izaten dugu. Berriena iaz sortu zen, 2022an.

Perfil proaktiboena sail hauetakoak dira: Ingeniaritza Industrial, Informatika eta Telekomunikazioak, eta Ingeniaritza Biokimikoa eta Zientziak.

Izapide guztietan laguntzen dugu. Gainera, Jerónimo de Ayanz Zentroa dugu, gai desberdinetako 6 ikerkuntza-instituturekin, eta han kokatzen dira spin-offetako batzuk alokairu baten bidez, beren ikerketa-taldetik gertu.

Ekimenei laguntzeko testuinguru horretan, beste eragile ezagun batzuekin lankidetzan dihardugu, sorkuntzatik, finantzaketatik eta sendotzetik sor daitezkeen beharrei erantzuteko; eragile horietatik dira CEIN, SODENA,



START UP NAVARRA, CLAVE MAYOR, Nafarroako TC Transfer Funtza eta Rural Kutxa.

Eta NUPerako desio bat...

Ekintzailetzaren esparruan, Unibertsitateak bideratzaile-rola betetzen du, eta betetzen jarraituko du, ekosistemaren barruan.

Ekimenak eta proiektuak diziplina anitzeko profilekin lortzea da erronka.



Gozagarriak

Elkarrizketak funtsezko eragileekin

> Belén Goñi

Belén Goñi Nafarroako Unibersitatea NUko Innovation Factory ekintzailatza eta berrikuntzako programa espezifikoaren arduraduna

Kaixo, Belen. Azalduko diguzu zer harreman dagoen NUren eta ekintzailatzaren artean?

Lehenik eta behin, esan behar da ez dagoela gazte askorik karrera bukatu orduko ekintzaile izaten denik, hori enpresak sortzea bakarrik dela ulertzen badugu. Ez da gure asmoa, ezta gure ikuspegia ere. Ekintzailatzaren “genea” hainbat arlotan aplikagarriak eta

beharrezkoak diren trebetasun eta gaitasunekin lotuta dago. Eta ildo horretan egiten dugu lan Nafarroako Unibertsitatean, oro har, eta Innovation Factorytik, zehazki.

Azalduko diguzu zertan datzan INNOVATION FACTORY eta haren historiari buruzko zerbait?

Innovation Factory 2015ean sortu zen, eta Nafarroako Unibertsitatearen Berrikuntza eta Ekintzailatza Zentroa da. Gure zeregina “ekintzailatzaren genea inokulatzea” da, ekimen sustapen, prestakuntza eta babeseko hainbat programa eta zerbitzu bideratuz eta garatuz zeharkako moduan, gure gazteen talentua gara dadin eta talentu horrek gizartean eragina izan dezan.



Eta nola funtzionatzen du? Zer programa eta zerbitzu daude?

Gauza asko egiten ditugu, eta agian, hiru talde ezberdinetara zuzentzen gara azalduz hasiera da argiena: ikasleak, ikertzaileak eta Alumni komunitatea.

Bestalde, **zerbitzu-sorta** zabala eskaintzen dugu: aholkularitza, azeleratzaileak, inkubazioa, lehiaketak, ekitaldiak, berrikuntza-kluba, etab. Gure helburua da hemendik “gauzak probatu ahal izatea” marko teoriko edo metodologia ezberdinak erabiliz baina funtsean **sekuentzia berari**

jarraitzen diotenak: problema edo erronka batetik abiatu, hura ebazteko ideia sustatu (ahal dela desberdinak, zenbat eta gehiago hobe), prototipatu, eta, azkenik, pentsatu nola testatu, haren interesa edo bideragarritasuna baliozkotzeko.

Metodologia hori aplikatzen dugu hainbat **iraupenetako programetan**: izan daitezke goiz bakar bateko hackatonak, enpresen benetako erronkekin, edo 25-100 ordu bitarteko prestakuntza-programak (Fast Track) Denek dute balio bat kreditutan, eta sari interesgarriak, hala nola bidaia politak.

Ildo horretan, badago **unibertsitatearen Titulua ere, GPIE** (Global Programme in Innovation and Entrepreneurship), karreraren denbora berean egiten dena larunbatetan.



Gozagarriak

Elkarrizketak funtsezko eragileekin

> Belén Goñi

Gainera, ahalegina egiten dugu ikasleen gradu- edo master-amaierako lanek eragina izan dezaten benetako startup batean, adibidez marketin-plana diseinatuz, **eta hartan praktikak egin ahal izan ditzaten.**

“Zirkulua ixteko” edo puntu guztiak konektatzeko modu bat da.

Jarduera horietan guztietan bi alderdi sustatu nahi ditugu: alde batetik, **diziplina anitzeko**

taldeetan lan egitea (sormena errazteko gakoa) eta **munduari irekitako pentsamoldea** izatea.

Hori dela eta, Espainiako eta nazioarteko hainbat ekintzailetza-programa eta saritan parte hartzera gonbidatzen dugu eta parte-hartze hori errazten dugu.

Hori guztia berdin egiten da Madrilgo campusean ere, eta hartan gainera **bi azeleratzaile tematiko daude:** bat **Modakoa**, eta bestea **Datuetakoa**.

Berrikuntza-klub bat dagoela esan duzu?

Ikasleek gidatu eta kudeatutako proiektua da. Bisitak planifikatzen dituzte edo inspiratuko dituen hizlariren bat gonbidatzen dute.

Proposatzen dute, hemendik argi berdea ematen diogu aurrekontuari, eta justifikatu egiten dute. Oso dinamikoa da.

Eta zer dago ikerketaren mundurako?

Inkubagailu bat daukagu. Ideia baten aurrean, aztertzen dugu ea enpresa bihur daitekeen, eta, hala bada, startup bihurtzeko bide osoa egiten dugu.

Inkubagailu hori zabalik dago, halaber, osasun-arloko kanpo-proiektuetarako, zeinei balioa ematen ahal baitiegu gure negozio-gaitasunetatik, gaitasun



klinikoetatik, zientifikoetatik edo teknologikoetatik abiatuta. Gainera, prestakuntza egiten da.

Eta ikasle ohiek, Alumni Komunitateak, parte hartzen du?

Asko parte hartzen du, eta zeregin erabakigarria du: mentore izanez, lehiaketetan epaimahaikide izanez, erronkak emanez, etab. Haien inplikazio handia eta eskura egotea dira, zalantzarik gabe, zentroaren indarguneetako bat, eta, lehen esan dudan bezala, “zirkulua ixteko” aukera ematen digu.

Eta zer eskatuko zenuke Innovation Factoryren etorkizunerako? Zure ustez, zer hobetzen ahal da?

Bi gauza eskatuko nituzke. Batetik, aurreratzen jarraitzea nahasketa errazteko, ezagutza-mota

desberdinak bateratzeko, hori esaten erraza baina lortzen zaila baita. Uste dut coworkingerako gune batek lagunduko lukeela lan horretan.

Bestalde, hasierako faseetan aurrekontu txikiko beharrak sortu ohi dira, eta horiek konpondu gabe daude. Hazi-fase horretarako diru-funts bat izatea oso ongi legoke.



Gozagarriak

Elkarrizketak zenbait ekintzaileri

> Natalia Baztán

Natalia Baztán Luna Azul Cosmetics

Kaixo, Natalia. Kontatuko diguzu zer den Luna Azul Cosmetics?

Luna Azul kosmetika eta makillaje naturaleko proiektu bat da, munduko antzinako kulturetan inspiratua, batez ere gurean. Bertako produktuak erabiltzen ditugu, edo, bestela, hurbileko komunitateetakoak. Munduko etniak (baskoiak, zeltak, aztekak edo bikingoak) hartu genituen inspirazio-iturri, haiek erabiltzen zituzten osagaiak eta formula tematizatuak erabiliz produktu-lerro desberdinak diseinatzeko eta plazaratzeko.

Gainera, asko arduratzen naiz jasagarria izan dadin, bai pertsonentzat, bai ingurumenarentzat.

Horregatik, produktu-lerro ahaltsu bat ontzirik gabea da, “zero hondakin”: xanpua, xaboiak eta ezpain-barra solidoak, adibidez. Eta ontzia duten lerroak material birziklatuz eginak dira (papera, metala, kartoia, beira).

Kontatuko diguzu zure historia? Nola sortu zen zure proiektua?

Nirekin. Txikia nintzenean, aitona, landa-eremukoa baitzen eta asko gustatzen baitzitzaizkion landareak eta erremedioak, izugarri erakutsi zidan, eta aitak, bestalde, alde zientifikoa eman zidan, biologoa baitzen.



Nigan elkar osatu dute bi parte horiek, eta txikitatik dut grina. Gero, Dietetika eta Nutrizioa ikastea erabaki nuen, eta Arbodietetikaren adarra aukeratu, argi bainuen belar-dendetan lan egin nahi nuela.

Eta hala aritu nintzen urte frankoz. Lan horretan, komunikaziorako eta bezeroaren arretarako dohainak ere hartu nituen.

2016an, paseo eta tailer txikiak egiten hasi nintzen jende ezagunarentzat. Hasi zitzaizkidan eskatzen “produktua egin eta

saltzeko”.

Artea ere ikasi nuen, sormena lantzeko, eta aholku profesionala bilatu nuen NL-NEZen. Azkenean, lan asko egin ondotik, nire proiektua sortu zen ofizialki 2019. urtean, online denda martxan jarri nuenean.

Eta hiru urte eta gehixeagoko ibilbidearen ondotik, gaur egun zer puntutan dago LUNA AZUL? Zer ikasi duzu?

Garrantzitsuena dela kontrastatzea, egiaztatzea, nire produktua saldu egiten dela. Hau da, bideragarritasuna. Baina ez hainbeste produktuarena nola ereduarena. Denak da kontuan hartzekoa; baita, adibidez, nola saltzen dudan ere. Errentagarri izateko, presentzia handiagoa emango diet onlineko erakusketa-



Gozagarriak

Elkarrizketak zenbait ekintzaileri

> Natalia Baztán

eta salmenta-kanalei.

Beraz, onlineko komunikazioa oso garrantzitsua da.

Oso. Ez da erakusleihoa bat bakarrik; harreman-kanal oso zabala da. Nire lanaren zati handi bat edukiak sortzea da orain, Instagramen argitaratu eta dinamizatzeko.

Beste lan bat egitea dakar, benetan. Orain jada eroso sentitzen naiz horretan, baina aitortzen dut aurtengo nire erronka handia izan dela. 2023an, horretan zentratuko naiz, badakidalako

errentagarritasunerako bidea hori dela.

Zer aholku emango zenioke ekitea pentsatzen ari den pertsona bati?

Ufff... asko emango nizkioke! Ondo planifikatu dezala, buru-indarra izan dezala, bidea zaila delako, profesionalen aholkua bila dezala... Baina uste dut garrantzitsuena dela gustuko duen zerbaitetan zentratzea, eta konponbideetan zentratzea, ez arazoetan.



Gozagarriak

Elkarrizketak zenbait ekintzaileri

> Nuria Iso

Nuria Iso Nautilus Experiencias Digitales

Kaixo, Nuria. Azalduko diguzu zer egiten duzuen Nautilusen?

Nautilus enpresa gazte bat da, 2020an sortua. Errealitate birtualean dihardugu, edukiak sortzen, eta, zehazki, errealitate birtualari buruzko prestakuntzan. Oraintxe bertan, CEINen Mintegian kokatuta gaude, eta 7 pertsona ari gara taldean.

Zorionak eboluzioagatik. Kontatuko diguzu nolakoak izan ziren zuen hastapenak?

Nautilus 2020an sortu genuen, justu pandemia baino astebete lehenago, baina bageneraman denbora bat. Nautilus, alde batetik, aurreko jarduera ekintzaile eta profesional

horren guztiaren emaitza da, eta, bestetik, etorkizunari begira egin nahi dugunarena.

Beraz, ez da lehen aldia ekintzaile diharduzuela...

Ez, 2013an In the Middle sortu genuen, non marketinean eta ekitaldietan aritzen ginen. Proiektu horrekin ikasi genuen errealitate birtualari buruz eta erronkei beldurrik ez izaten. Beti gustatu izan zaigu inork egin ezin zuena egitea. Bultzada, indarra eta ezagutza eman dizkigu, eta horrek ahalbidetu digu benetan nahi genuen lekuan ekitea. Proiektu horrek errealitate birtuala ezagutzeko aukera eman zigun, baina guztiz zoriontsuak ez ginen eremu batean geunden.

Beraz, guztia eten eta berrabiaraztea erabaki genuen; batzuetan, horrek beldur handiagoa ematen du ekintzaile izateak baino. Ateak



eta bezeroak itxi genituen, eta motibatzen gintuen zerbaiti ekitea erabaki genuen.

Orain Nautilus eta VR Magister aipatzen dituzu. Azalduko diguzu zer den?

Gure asmoa da errealitate birtuala ohiko lan-tresna gisa ezartzea hezkuntza-munduan. Irmoki sinesten dugu duen ahalmen pedagogikoan, bai eta dituen abantaila ekonomiko eta ingurumenekoetan ere, eta horregatik uste dugu presente egon behar duela Hezkuntzan. Hori lortzeko lehen urratsa VR Magister

da, prestakuntza-zentroetarako errealitate birtualeko edukia duen gure plataforma. Dagoeneko bi software desberdin ditu: ftSkills, trebetasun bigunak entrenatzeko, eta Content Creator, irakasleek eduki propioa sortu ahal izateko.

Ez dugu hor gelditu nahi; bi software horiek ikasgelan errealitate birtualak duen potentzialaren adibide dira, baina gure azken helburua irakasleekin batera lan egitea da, elkarlanean software gehiago eta aplikazio gehiago sortzea eta diseinatzea. Haiekin erabilera-dinamika berriak sortzea.



Gozagarriak

Elkarrizketak zenbait ekintzaileri

> Nuria Iso

Eta nola egiten duzue?

Digitalizazioan espezializatutako ATECA IKASGELAK baliatuz. Nafarroak 8 ditu dagoeneko.

Zuen eredu onlineko komunikazioa garrantzitsua dela esanen zenuke?

Oraingoz, ez. Gure bezeroak eta jende preskriptorea ez dira hor “mugitzen”. Hala ere, komunikazioaren esparrua eta “oskoletik ateratzea” funtsezkoak dira nahi dena lortzeko. Gure kasuan, saiatzen ari gara gure sektorean gertatzen den guztian “presente eta aktibo” egoten: ekitaldietan parte hartzea, hitzaldiak, AMENDAtik jaso dugun Saria edo CEINen egotea bera ere funtsezkoak dira presentzia eta posizionamendu ona lortzeko. Ez da nahikoa egiten duzun horretan “oso ona” izatea; horrez gain, jakin behar da “erakusten eta frogatzen”.


Hori izanen litzateke zure aholkua ekintzaile izateko asmotan dabilen batentzat?

Bai... prest egon behar da “oskoletik ateratzeko”, arreta jarri, presente egon, modu aktiboan, zure sektorean edo zure merkatuan gertatzen den horretan. Horrela, azkarrago egokitu ahalko zara eta irtenbide hobeak diseinatu ahalko dituzu.






Beste batzuk



Etxez etxe

Enpresa hornitzaileen
fitxak



Klik batera

Gidak, bilatzaileak
eta aplikazio
interesgarriak



Itxiera

Glosarioa
Informazio-iturriak
Eskertzak eta itxiera

Etxez etxe

Enpresa hornitzaileak

Nafarroako ekintzaileen eta ekintzaileentzako soluzioak



Maite Arrondok sortua, La Dinamo Coworkingek barrutik ezagutzen du ekintzaileen errealitatea, eta, horregatik, lanerako gune desberdinak eskaintzen ditu, malgutasunez eta kontziliazioa zainduz, Arrotxapetik.



www.alfonsoperezazcarate.com

Alfonso Pérez Azcarate, **komunikazio eraginkorreko** aholkularitza. Zerbitzu-sorta zabala pertsonen artean eta eremu digitalean, eta komunikazio-gaitasunei buruzko prestakuntza.



www.omapora.eu

Mónica Revenga diseinatzaile grafikoa, editorea eta proiektugilea da 2017tik. Estudio Omaporak hainbat soluzio eskaintzen ditu proiektu bakoitzaren balioekin bat datorren irudia eta materialak lortzeko. Gainera, beste proiektu bat koordinatzen du,

www.guerreras.es

Ez galdu aukera!



www.unosizeros.com

Josema Romerok, enpresa-munduan eskarmentu handia duen profesionala bera, hurbiltasunean eta bizkortasunean oinarritutako soluzio administratibo pertsonalizatuak eskaintzen ditu, ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz.

Martín Cerro, Agente Digital.

www.cerromartin.com

Martín Cerro agente digital bat da, eta autonomoei eta enpresa txikiei laguntzen die soluzio digital eraginkorrak eskuratzen sare sozialetan eta Interneten ezagutzera emateko.

ZAMARI

www.zamariasesores.com

Zamari Asesores enpresan, enpresa-kudeaketan adituak dira, eta bere taldeak ekintzailetzari buruzko dirulaguntzen zerbitzu espezifiko bat du.



Etxez etxe

Enpresa hornitzaileak



www.artaiz-asesoria.es

ArtaiZ Teknologia Aholkularitzan

teknologia enpresa txiki eta ertainetan integratzen laguntzen dute.

Denbora luzez aholkulari, hainbat sektoretan, produktibitatea hobetzeko, aurrezteko eta zerbitzu on bat emateko.



www.vidorretadesign.com

Javier Vidorreta du sortzaile produktu eta markak berritzeko ideien, sormenaren eta esperimentazioaren laborategi honek. Produktuaren diseinuan eta diseinu grafikoan espezialistak, beti erronka berriak entzuteko prest.



www.blancafotografiaprofesional.com

Balioa irudiaren bidez indartzea da argazkigintzako profesional horiek eskaintzen duten irtenbidea.

Ekintzaile, enpresa eta saltoki gehienek behar dute egiten jakite hori.



www.ashler.design

Estudio honek sormenaren, estrategiaren eta komunikazioaren arteko elkargunean egiten du lan.

Oso gogoko dituzte tipografia, erabiltzaile-esperientzia eta kontzeptu indartsuak.

Gainera, KIT DIGITALaren barruan daude.



www.lauakasesores.es

Lauak Asesores-en ezagutza

zabala dute ekintzailatza sozialean, bideragarritasunean, obligazio fiskaletan, arlo juridikoan...



Klik batera

Plataforma eta tresna interesgarriak

Ez galdu ekintzailatzaren eta haren hazkundearen hainbat alderdi sakon aztertzen dituzten baliabide hauek. Ohiko erreferenteak dira gure lanean.

Atariak



Ipyme Ataria

Atari instituzionala, laguntza, gida eta programa garrantzitsuak dituena.

[Ipyme Ataria](#)

Gidak




METODOLOGÍA DE INNOVACIÓN SOCIAL EMPRESARIAL

Nafarroako Gobernuak Gizarte Berrikuntzako Unitateak **gizarte berrikuntzako proiektuak** diseinatu eta garatzeko erabiltzen dituen metodologia eta taktikak argitaratzen ditu.

[DESKARGATU](#)

Bilatzaileak



Nafarroako Laguntza Bilatzailea

www.navarra.es etik sartzen da bilatzaile honetara, zeina oso erabilgarria baita Nafarroako Gobernuaren **laguntzak eta dirulaguntzak** aurkitzeko. Sariak, lehiaketak eta abar ere aurki ditzakezu. Iragazkia oso praktikoa du, **egoeraren arabera** bilaketa ahalbidetzen duena.



Laguntzen Datu Base Nazionala

<https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/GE/es/convocatorias>

Dirulaguntzen Datu Base Nazionala Espainiako dirulaguntzen publizitate-sistema da, eta herritarrek une bakoitzean argitaratuta dauden dirulaguntza guztien berri izateko duten eskubidea bermatzen du, publikotasun- eta gardentasun-printzipioen arabera.



Klik batera

Plataforma eta tresna interesgarriak

Aplikazioak



Business Plan Premier

Aplikazio honek, gehienbat, startup modalitatea aukeratzen duten ekintzaileei begiratzen die.

Negozio-planak sortzeko, ezarritako itxaropenak eta helburuak lortzeko, marketing-plan fidagarri bat garatzeko eta gehiagorako balio du. Hori dena, poltsiko batean gordetzen den tresna batean.

Aurkitu ezazu zure App Storen.

Beste erreferente batzuk

[Revista Emprendedores](#)

[Infoautonomos](#)



SumUp

Fakturatzeko orduan, Sumup aplikazioa bikaina da kontabilitatea hodeian eramateko eta mugikorretik, tabletatik edo ordenagailutik ezin hobeki maneiatzeko.

Aukera ematen du faktura azkar eta sinpleak egiteko, kontu-mugimenduak kontrolatzeko eta kontabilitatea etengabe eguneratzeko.

Aurkitu ezazu zure App Storen.



Badakizu zenbat kobratu zure freelance orduagatik?

<http://www.calculadorafreelance.com/>

Online kalkulagailua, doakoa, autonomo izanda orduko gutxienez zenbat kobratu beharko zenukeen jakiteko.

Diseinatzaile grafikoei, web-diseinatzaileei, programatzaileei, itzultzaileei eta abarri zuzendua.



Glosarioa

Azeleratzailea

Enpresa-azeleratzaile bat startup-ak edo enpresa-merkatura agertzen ari diren beste enpresa batzuk bultzatzen dituen zerbitzu bat da. Epe zehatz bateko deialdiak dituen programa batean oinarritzen da.

Business angel

Etorkizunean irabaziak lortzeko enpresari berriei finantzaketa eta/edo esperientzia ematen dien pertsona fisiko edo juridikoa da. Inbertitzaile pribatua da, enpresa-proiektu batean laguntzeko prest dagoena.

Crowdfunding-a

Ekarpen txikien bidez norbanako askoren kapitala erabiltzean datzan finantzaketa-mota.

Coworking-guneak

Gune partekatuak, zeinetan profesional autonomoak, telelangileak eta enpresaburuak elkartzen baitira lan egiteko, eta gunearen kudeatzaileak saiatzen baitira aukera profesionalak eta pertsonalak konektatzen eta sortzen kideen artean eta kideentzat.

Tokiko ekintza-taldeak (TET)

Irabazi-asmorik gabeko elkarte publiko-pribatuak, asanbladetan eta eskualde-esparruan jarduten dutenak. Haien funtzio nagusia da Tokiko Garapen Partizipatiboko Estrategiak (EDLP, gaztelaniazko sigletan) diseinatzea, martxan jartzea eta kudeatzea.

Aurreko estekan kontsultatu daiteke zure udalerriri dagokion Tokiko Ekintza Taldea.

Lab-ak

Berrikuntzako elkarlan-guneak dira, zeinetan teknologia aitzakia eta katalizatzaile baita elkarreragineko proiektuen ikerketa-, esperimentazio-, diseinu- eta garapen-prozesuetan.

Hub-a

Tokiko zein nazioarteko negozioek osatutako ekosistema bat da. Enpresariak negozio-zentro horietan konektatzen dute, eta ekintzaileek aukera izan dezakete finantzaketarako, inbertsioetarako eta azelerazio-programetarako.

Startup-inkubagailua

Enpresa sortu berriak, produktuak edo zerbitzuak merkaturatzen dituztenak informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera intentsiboaren bidez, negozio-eredu eskalagarri batekin, zeinak hazkunde bizkor eta denboran iraugarri bat ahalbidetzen baitu.



Erabilitako informazio-iturriak:

- [Nafarroa Ekintzaile](#)
- Landa Sare Nazionalak egindako gida
 - “Nork laguntzen dizu ekiten” gida, Emprendedores aldizkariarena
- Erakunde eta enpresen webguneak aztertzea eta egiaztatzea
 - Elkarrizketak





